



uk

73. zenbakia / 2004 abenduak 20



# ITXURA BERRIA DAKAR 2005AK

HAINBAT BERRIKUNTZA AURKITUKO DUZU  
ARGIAREN 2005EKO EGUTEGIAN.  
INFORMAZIO ERABILGARRIA DAKAR  
AZALEAN ETA EGUNAREKIN LOTUTAKO  
GERTAERA BITXI ETA  
INTERESGARRIAK  
ATZEALDEAN

**ARGIA**  
egutegia  
2005  
Santak  
Nebatzen, Euzerjo  
Tito  
Salento Frantzisko  
Isandegia  
Antzoko, Larriari  
egutegia  
soru 8.332  
gorria 18.08

urtarrila

24  
astelehena

igandea

15  
asteartea

# 2005

7,5  
Salgai duzu  
dagoeneko



«Gau on, daukanak bonbon ez daukanak egon» Euskal esaera

## Non zer

- GU GEU.
- IRUDIA. Zozoak inozoak? Asier Mentxaka.
- PLAZA. Leihatila, Josu Esnaola. Gabonak, Maddi Albizu (soziologoa).
- LEHEN ETA ORAIN. Areeta. 1920-2004.
- TALAI. Beste begirada bat eskualdeari.
- HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
- AGENDA.

### SAKONEAN

- ALBUMA. San Andresak Barrikan. Asier Mentxaka.
- BERBETAN. Txema Ramirez de la Piscina. Unai Brea.
- ARGAZKIA. Elurra Algortan. Konrado Mugertza.
- ERREPORTAJEA. Leioa, EHuko hiriburua. U. B.
- FOTOGRAFIA. Geboztar barriak. Txelu Angoitia.

### KULTURA ETA AISIA

- ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea. Zinebi sariak.
- MUSIKA. Salduenak Durangoko azokan. Diskoen erreseinak.
- LIBURUAK. Euskaltzaindiaren Literatur sariak eta Esti Ezkerraren zutabea.
- KOMUNIKAZIOA. Argiaren egutegia.
- SAREAN. Internet, Iker Merchanen eskutik.
- ELKARRIZKETA. Emilia Epelde. Unai Brea.

### EUSKARAZ

- AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Urtzi Iglesiasen eskutik. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.

### AMAITZEKO

- JAN ETA EDAN. Gaizka Escudoren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Non jan? Gorizko Haizea tabernan.
- HOROSKOPOA.
- KOMIKIA. Dogan Gozel.
- DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- FLASH BACK. Eleizpe eskaut taldea, 1983. Bittor Egurrola.
- AITORMENAK. Ander Vilarño. Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Asier Mentxaka (7 mares dendari, gure eskerrak)



**Berbetan**  
EHUko irakasle da eta orain dela gutxi egin den I. Euskarazko Kazetaritzaren Kongresuko antolatzaileetako bat izan da.



**KID'S**  
ROPA Y CALZADO  
Tallas de 0 a 16 años

Con motivo de las Fiestas Navideñas KID'S quiere tener un GRAN DETALLE con sus clientes obsequiándoles con un **10% y 20% de DESCUENTO** EN TODOS SUS ARTÍCULOS tanto en ropa como en calzado.

ROXY GIRL, KENZO, MERRELL, OXBOW, FLYING, TIBERLAND, LEVIS, MERRELL

Avda. Baragoiti, nº 36 • ALGORTA  
Tfno: 944 601 577 • Móvil: 653 715 033

**KONTXI**  
ZUAZUBISKAR  
URDAITEGIXA

zorionak eta urteberri on!

Adituak gara,  
Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

**GABONETAN**  
• Tolosako Eceiza turroia eta Bilboko Correos kaleko turroia (Eladio Ibañez Coloma)

Alangobarri, 10 ALGORTA / T.: 94 491 02 93

eskaerak

943 37 15 45 • denda@argia.com  
Ohiko salmenta puntuetan





## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

**ARGITARATZAILEA:** Boluntzarreta  
**HELBIBIDEA:** Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171  
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31  
**ZUZENDARIA:** Jokin Aspuru  
**ERREDAKZIOA:** Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel  
**FOTOGRAFIA:** Asier Mentxaka  
**TESTUEN ORRAZKETA:** Jon Etxebarria  
**KOLABORATZAILEAK:** Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Bittor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Xabier Buenetxea, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskaraz Elkartea  
**MARRAZKILARIAK:** Dogan Gozel, Gorka Vázquez  
**PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA:** Zuriñe Martínez (94 491 13 37)  
**HARREMANAK:** Gorka Orueta  
**FILMAZIOA:** Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF  
**LEGE GORDAILUA:** BI-1878-00  
**ISSN:** 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz koptatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaidea da

**Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskaraz Elkartearen dirulaguntza jasotzen du**



Itxasgane Etxea / Karitatea 1  
94 491 43 57 / 48990 Algorta

**GETXOKO UDALA**

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



**Leioako Udala**

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskaraz Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



**Erandioko Udala**

Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du



**Bizkaiko Foru Aldundia**

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du



**Fundación Grupo Eroski**

Aldizkari honek Eroski Jaurlaritzaren Kultura Salaren dirulaguntza jaso du



**UK**

**Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntzak**

**BBK 2095 0121 10 91 02483676**

**Boluntzarreta**

gugeu

# 2005 arte

**Aurtengo azken UK duzu hau, irakurle.** Data hauetan, urtero legez, Gabon zorientsuak... eta hori guztia opa behar dizuegu. Beraz, badakizu... hori guztia!

Gu, sasoi honetan, ohiko moduan eta aldizkaria argitaratzeari dagokionez, atsedendaldia hartzera goaz eta, beraz, jakin ezazu hurrengo UK urtarilaren akabuan jasoko duzula etxean. Honek ez du esan gura, ordea, ordura arte geldi egongo garenik, izan ere honezkeror datorren urteko UK prestatzen hasi gara-eta. Aldizkari hobeia egiten ahalegindu garela esan beharrik ez badago ere, horixe da gure asmoa. 2005eko lehenengo UKn aurreratzen ausartzen ez garen aldatetak igarriko dituzu lagun. Ea asmatzen dugun eta zure gustukoak diren!

Bestetik, ez dakigu harira datorren edo gai honek azalpenik behar duen, baina sarritan UKn egiten ditugun azalen gaineko itaun asko jasotzen ditugu. Antza, zeresanik pizten dute gure portadek: zertara dator hau?, ederrak dira, ez dira ulertzen, segi horrela... Era guztietako iritziak jasotzen ditugu. Bada, honen gainean zer esan dezakegu? Gure asmo umila, kalitatezko irudi bat baliatuz zugar emozioaren bat, gogoetaren bat piztea baino ez da. Kitto, ez dago besterik. Langostino mordoa ipini dugu azalean azken zenbaki honetan. Zergatik? Askok gustatzen zaizkigulako? Gabonak direlako? Langostinoaren espeziea desagertzeko arrisku larrian dagoelako? Iguar du.

Amaitzeko, eta esan bezala, urtarilaren akabuan atzera jasoko duzu UK zure etxean, irakurle. Ordura arte: Urtebarri on, –eta ahal baduzu– *ondo pasa, gitxi gasta eta bueltak amari!* 4

**UKko lantaldea**

## gutunak

**Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu.**  
**Zuon testuak bidaltzeko:** uk@aldizkaria.biz • Faxa: 94 491 58 31

## matematika aplikatua



*Goizero erosi* > **berria**

[irudia]



GETXO, 2004-12-10

**Zozoak, inozoak?** / Bat-batean hodei beltz bat agertu da Algortan eta hortxe egon da gure argazkilaria arma ehizarako prest. Nora ete doaz zozo horiek guztiak batera? Negu gorria saihestearren leku epelagoetara joan ei dira. Baina, orduan, zergatik esaten da “aita bezain zozoa da hori”? Izan ere, nor da inozoagoa, hotza datorrenean leku epeleagoetara joaten dena ala hotza sufritzen geratzen dena? Zuk zeuk erabaki guk argi eta garbi daukagu-eta. / Argazkia: **Asier Mentxaka**



**Leihatila**

&gt; Josu Esnaola

**Dringilin dron***Dringilon dron gaur gabon, sabela betea daukat eta besteak hor konpon*

**Badatoz gabonak**, eta horrekin batera jan-edanaren apologia. Garai bateko ohiturak bazterrean utzi, solstizioarekin lotutakoak, suarekin eta urarekin zerikusia daukatenak, eta inolako zentzurik gabeko kontsumismoaren inguruan sortutako zurrunbilo eroan jausiko gara berriro ere.

Ez al da garaia, apurka-apurka gure historiarekin egiten ari garen beza-la, gure ohiturak ezagutu eta berreskuratzea? Ala globalizazioak dakarren kultura bakarraren aurrean amore eman behar al dugu?

Sustraietatik elikatzen dira zuhaitzak, eta ondo erroturik ez dagoen arbolak nekez iraungo du bizirik.

Ez diot lan erraza denik, baina jakin dezagun nondik gatozen, zer garen eta nora heldu nahi dugun jakiteko. Izan ere, nahikoa al dugu Jingle Bells euskaraz kantatzearekin euskaldun izateko? Nahikoa al da Hiru erregeen edo Noelen ordez opariak Olentzerok ekartzea?

Satrustegik eta Barandiaranek jasotako elezaharretan agertzen denez azken jentila litzateke gure Olentzero. Beharbada hemendik mende batzuetara, beste planetaren bateko izakiek kontaktuko dute nola heldu zen Lurra izeneko planetatik hommo sapiens espezieko azkena gizakien galeraren berri emanez, eta berari kantatuko diote, guk egun egiten dugun bezala. Horra, horra, gure Olentzero. 4

**IRITZIA**

**Konturatu barik atzera ere Gabonak gainean ditugu. Egun hauek pizten dituen sentimenduen gaineko gogoeta eskatu diogu Maddi Albizu soziologoari.**

**Gabonak**

**Gabonei buruz** idazteko eskatu didate eta, aitortu beharra daukat, kontsumoari buruz idazteko tentaldiari eutsi behar izan diot, hauxe izan baita nire lehenengo bultzada. Ez dezadan, ordea, neure burua engaina. Gabonek nire sentimenduak azalarazteko gaitasunean datzan halako xarma berezi bat sortu didate txiki-txikitatik. Hauxe da, bada, gabonak kontsumora emandako sasoi delat une batez ahazturik egindako gogoeta.

Oroitzapenak, sentsazioak, ilusioak... hitz batean, sentimenduak sortzeko ahalmena da, hain zuzen ere, batzuk Gabonak noiz iritsiko eta, beste batzuk, berriz, noiz bukatuko zain egotearen arrazoi nagusia. Hori bai, oso gutxi azaltzen

**“Diskurtso politikoki zuzenak kontsumo eroa azpimarratzera naraman arren, ezin dut ukatu gabonak gustatu egiten zaizkidala”**

gara axolagabe gabonen aurrean. Funtsean, sei sentimendu mota azaleratzen dira Gabonetan, era desberdinean konbinaturik. Norberak jakingo du bere kasuan zein edo zeintzuk nagusitzen zaizkion.

Batek **haurtzaroaren oroitzapena**. Beharbada sasoi honetako sentimendurik zabal-

duenetako bat. Nork ez du Gabonetan bere haur-garaia gogora ekarri, behin bada ere. Nik neuk ere ilusioz beteriko une haiek sarri askotan gogoratzen ditut. Garai haietan erabat zehazgabea zen errealitate gordinaren eta fantasiaren arteko muga gaur egun ezin begibistatik kendu.

Bigarren sentimendua **ilusioa** da. Bizitzak sentimendu horretaz, aspaldiko partez, berriz ere gozatzeko aukera eman digu seme-alabak ditugunoi. Izan ere, gure seme-alabengan Gabonek sortzen duten ilusioa geure ilusioa ere bada.

**Denboraren joana** da hirugarren sentimendua, urtea Gabonekin batera amaitzen da eta. “Beste urte bat” diogu gure artean abenduaren 31ko gaueko azken kanpai hotsa entzutearekin

batera, eta horrek denbora, ezinbestean, aurrera doala gogorarazten digu urtero-urtero.


Laugarren sentimendua **familia batzeak** edo **familia batu ezin**ak ekartzen diguna da. Aspaldi ikusi gabekoak ikusteak poza ematen digun bezalaxe, Gabonetan izan ezik berriz ere ikusiko ez ditugunak ikusteak min handia ematen digu. Norbait falta duenak ondotxo daki zein sentimendu sakon eta mingarria den hau.

Bosgarrena **sentimendu kristaua** da, fededunengan sortzen dena. Kristau mitologiak egunotan kokatzen du “Salbatzailearen” jaiotza eta horixe da ospatzen dena.

Azkenik, seigarren sentimendua zer ospaturik ez dutenekiko **erruki sentimendua** da. Egunotan bereziki sarkorra zaigu kale gorrian gaua egiten duten ehunka etxe gabekoen begirada. Zergatik?

Haurtzaroaren oroitzapena, ilusioa, denboraren joana, familiartekotasuna, kristautasuna eta errukia Gabonak bizitzeko era desberdinak dira. Nik neure erara bizi dut sasoi hau, eta diskurtso politikoki zuzenak edozeren gainetik kontsumo eroa azpimarratzera naraman arren, ezin dut ukatu Gabonak gustatu egiten zaizkidala. 4

Maddi Albizu (soziologoa)



[lehen]



[orain]

**photoshop > gabonetan haurrak nagusi**

Irudiak eta manipulazioa: A. M.

**Iraganez doa denbora\* beti / AREETA 1920-2004**

\* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.





Punta Galea elkarte gastronomikoak antolatutako pintxo dastaketaren irudiak dituzue hauek, eta pintxo goxo-goxoak dastatu ahal izan zirela esan barik doa. Asko izan ziren elkartearen egoitzara hurbildu ziren getxoztarrak.



## galea gastronomia elkarteak > 25 urte

**Orain dela gutxi** ospatu du Punta Galea gastronomia elkarteak 25. urteurrena. Ospakizun ekitaldia bi egunetan banatu zen, lehenengo egunean bazkide, languntzaile eta herritarrentzako pintxo dastaketa antolatu zuten; bigarrenan, oster, bazkari ederra prestatu zuten bazkideentzat. Bazkaria egin zuten egun horretan bertan elkarteak 25 urte daramatzaten bazkideak omendu zituzten, eta bapoz bazkaldu ostean oroigarri bana jaso zuten. 1979an sortu zen Getxoko elkarte gastronomiko honek ia 50 bazkide dauzka gaur egun. Punta Galea elkarte gastronomikoa da, lehen esan legez, baina izena baino zeozer gehiago partekatzen du 1975ean sortutako txirrindularitza elkarteagaz, hala nola, batzarretarako egoitza. Amaitzeko, beste hainbeste urte bizirautea opatzea besterik ez zaigu geratzen: Zorionak! m

SATISTEGI  
CAFE

# ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA

## aurkezpena > Getxoko literatur gida



Xabier Paya, Unai Elorriaga, Kepa Altonaga, Iñaki Friera, Laura Mintegi eta Esti Ezkerra



**Euskararen** Egunaren bezperan, hau da, abenduaren 2an, aurkeztu zitzaizen Getxoko literaturzaleei herrian bizi diren idazleen berri ematen duen literatur gida. Euskararen Jardunaldien barruan egin zen ekitaldi honetan liburuxkan azaltzen diren idazle gehienak (hiruzpalauk piper egin zuten) eta gidaren egile den Esti Ezkerra batu ziren literaturaren gainean mahai-ingurua egiteko. m

## kale izendegia > Lope de Vega



**Erromo** aldera jo dugu orainoan, beste pertsonaia baten inguruan berba egiteko gure ataltxo honetan; izan ere, auzo horretan ikusi dugu Lope de Vega izeneko kalea. Madrilen jaio eta zendu zen Lope Félix de Vega y Carpio idazlea, 1562an eta 1635ean, hurrenez hurren. Bere garaiko idazlerik nabarmenena eta oparoen izan zen, ondorengo literaturan eragin sakona izan zuena. Bizirik eman zituen 73 urteetan 1.800 obra profano, 400 drama erlijioso, artzain-nobela bat, eta poema mistikoak eta burleskoak idazteko denbora aurkitu zuen. Antzerki-lanei dagokienez, Lope de Vegak Espainiako tradizio historikoa, erlijiosoa eta herri-tradizioa elkartu zituen *Zalameako alkatea*, *Baratzainaren txakurra*, *Fuenteovejuna*, *Olmedoko zalduna* eta *Erregea*, alkaterik onena liburuetan. m

## GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarreniak

Orduña Mendatea 1  
T: 430 22 13  
GETXO

Telleteke 13  
T: 460 02 88  
ALGORTA

etorri  
eta  
ikusi!!

# MORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)  
Tfn.: 94 491 23 79  
Algorta

## BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA  
KIZOL moda



350 m<sup>2</sup>

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82



# Zabortegeia urte hasieran itxiko da

**Hiri-hondakin solidoen transferentziarako** gune berriak **2005ean zabalduko** ditu ateak, baina oraindik udalak **ez du erabaki hondakinak** behin txikitu ostean **nora eroango** dituen

70. hamarkadan sortutako zabortegeia guztiz beteta egongo denean zabalduko dituzte ateak hiri-hondakin solidoen transferentziarako instalazioak eta Garbilekuak. Udal arduradunek hori 2005eko lehenengo hiruhilekoan gertatzea aurreikusten dute. Bestalde, zabortegeiaren inguruko lur eremua berreskuratzeko egitasmoa prest dauka udalak: ingurugiroko gela eraiki, bideak paseorako prestatu eta ingurumenagaz lotutako egitura osoa abian ipini.



Irudian proiektuaren maketa infografikoa

**Hiri-hondakin** solidoen transferentziarako gune berria eta Garbilekua gaur egun zabortegeia dagoen behe aldean lekutuko da. Proiektuak 3 urtetako iraupena dauka: 2003an eremuaren prestakuntza-lanak egin ziren, aurten egiteko ia lan denak egin dira, eta 2005ean Ingurugiroko Gela sortu, paseorako bide eta parkea prestatu, eta lur-sailaren berreskuratzeko lanak amaitu ostean emango da bukatutzat proiektua. Egitasmoak 3.518.144 euroko aurrekontua dauka, eta %80 Europako Batasunaren diru-laguntzagaz gauzatuko da.

Hiri-hondakin solidoen transferentziarako guneak 3 edukiontzi izango ditu, horietan zaborra zapaldu eta txiki-txiki egiten da, gero txikitutako zaborra kamioetan sartu eta beste nonora eroango dute. Oraindik udalak ez du erabaki zaborra nora eroan, ezta zein tratamendu emango zaion ere (errausketa, beste zabortegei bat, konpos-

taketa...). Hasieran 3 edukiontziatik 2 bakarrik erabiliko dira, eta hirugarrena inguruko beste udalerrri batzuei (edota beste erakunderen bati) uztea pentsatzen dabil udala.

Bestalde, Garbilekuan herritarrek hondakinak utzi ahal izango dituzte, esaterako, etxean erabiltzen den olio edota gai toxikoak uzteko edukiontziak egongo dira, eta 24 orduz egongo da zabalik.

**«Garbilekua 24 orduz egongo da zabalik, eta ez du zaborra uzteko pisu mugarik edukiko»**

**Zabor txikitua nora joango da?**

Lehentxuago esan legez, Getxoko udalak oraindik ez du erabaki txikitutako hiri-hondakin solidoakaz zer egin, hau da, zabor horri zein tratamendu emango zaion.

Hala ere, hondakinak tratatzeko edota uzteko lekua erabakitzeko lehiaketaren baldintzak onartu ditu dagoeneko. Baldintzotan zehazten denez, errausketa proposatuko lukeen enpresak puntu dexente eskuratuko lituzke. Bestalde, zaborraren tratamendua 25 urterako esleituko luke udalak, eta 56 euro ordainduko lituzke tratatutako zabor tona bakoitzeko. m

## Zenbait datu

- **2005eko lehen hiruhilekoan** itxiko da zabortegeia, eta transferentziarako instalazioa eta Garbilekua zabalduko dira.
- **3.518.144 euroko** aurrekontua dauka proiektuak.
- **%80 Europako Batasunak** ordainduko du.
- **Hondakinak nora eroan** erabakitzeko baldintzen lehiaketa prest dauka udalak.

## Olentzeroren Batzordea Ongietorria egiteko haimaka ekitaldi egingo dira



25 urte daramatza lanean Olentzeroren Batzordeak. Argazkian, taldeetako ordezkariek

**Olentzerori ongiatorri** galanta prestatu dio Algortako batzordeak. 1989an sortu zen Olentzeroren Batzordea eta, gaur egun, hurrengo taldeek osatzen dute: Itxartu eta Agurra dantza taldeak, Algortako eskaut taldea, Eskubeltz taldea, ALBE, Gorrondatxe elkarte eta Amnistiaren aldeko mugimendua. Hamaika ekitaldi prestatu dituzte: abenduaren 23an pailazoan ikuskizuna egongo da Getxo Antzokian (17:30), eta Telletxe plazan (19:00) Olentzeroren panpina, gutunak

bidaltzeko postontzia, taloak, sagardoa, bert-solari gazteen saioa etab. aurreikusten dira. Abenduaren 24an, Antzerki Eskola-ren kalejirak iratzarriko gaitu, ostean, *Olentzero nik nahi nuke...* antzezlan egingo da Antzokian (12:00). Gero, puzgarriak, hankapaluak eta ESAITek prestatutako haur-jolasak egongo dira Telletxen. Arratsaldean, Olentzerogaz egingo da kalejira, Benantziosen hasiko da (17:00), Villamonten banatuko dira opariak eta San Nikolas plazan esango zaio agur Olentzerori. m

## UDALAK BEHIN BETIKO ONARTU DITU 2005EKO ZERGAK ETA TASAK

Getxoko udalak behin betiko onartu ditu datorren urteari begira udal tasek eta zergek izango duten igoera. Zerga eta tasa gehienek %3,5 egingo dute gora. Igoeren kontra aurkeztu ziren alegazioak, 250etik gora, ezetsi zituen udalak. Alabaina, badira gorakada nabarmenagoa jasango duten tasak eta zergak: udal kiroldegiko bazkideek %10 gehiago ordaindu beharko dute datorren urtean; Andres Isasi Musika Eskolako ikasleen tarifa %5 igoko da; Nagusien udal Egoitza sartuko diren berriek %5 gehiago ordaindu beharko dute, eta Egoitza 2002. urtea baino lehen daudenean aurten ordaindutakoa baino %20 gehiago. Badaude gora egingo duten beste zerga batzuk ere, adibidez, istripuetako udal atestatuen kopiak 13 euro balioko du.

## USOEN KOPURUA MURRIZTEKO NEURRIAK HARTU DITU UDALAK

Getxoko udalak jakinarazi duenez, usoen kopuruak izugarri egin du gora udalerrian, eta herritarrei arazoak eragiten ei dizkiete txoriek. Getxoko alkatearen ahotan, *“txori politik dira, baina zikinak eta arazoak sortzen dabilta herrian”*. Hori dela-eta, udalak enpresa baten esku utzi ditu usoen kopurua murrizteko eginbeharrak. Azaroaren erdialdean hasi zen lanean enpresa hori, eta urte amaiera arte jardungo du zeregin horretan. Sare bat airera botatz, usook harrapatuko dituzte, eta ondoren beste mundura bidaliko dituzte, hau da, hil egingo dituzte.

**A Arasa**  
Sukalde eta Komunitarako Ekipamendu Osoa  
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioak  
Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta  
Tel/Fax: 94 430 11 91

san inazio  
autoeskola  
1951n sortua  
LCC - A1 - A - B - BTP  
baimenak  
Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45  
ALGORTA

Instalazio elektrikoak  
**Electro LAIA**  
Larrialdi Zerbitzua 24 orduz  
**670 415 732**  
LARRABASTERRA  
Konpromisorik gabeko aurrekontuak / Komunitate lanetarako - martiritimendua / etxebizitza, lorja, pabilien erretormak / bomba hidraulikoak / telefonia, ahots eta datuen sareak

**Basurto**  
Algorta S.L.  
altzariak  
Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

**LEHEN, ORAIN ETA BETI**  
• 1970az geroztik altzariak diseinatzen.  
• Orain ere, armairuak neurria.  
• 200 m<sup>2</sup>ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)  
**Urtebarri on!**



# Bapiruke

Umeentzako lantegi, irteera, ikuskizunak... Gabonetan

**Urtero legez,** Bapigabonak ekitaldiz gainezka datoz. Umeentzako ekintzak antolatzen dituen Bapiruke ekimenak ekitaldi mordoa antolatu du Gabonetarako. Abenduaren 23an Olentzerori ongietorri itzela prestatzeko lantegiak egingo dira, eta hilaren 24an antzerkia egongo da. Abenduaren 27an irristatzera joateko irteera antolatu dute Gasteizera, eta PINera joateko irteera 29an egingo da. Abenduaren 28 eta 30ean lantegiak prestatu dituzte, eta bertan "lagun izkutuari" emateko opariak egingo dira. Berbena batez amaituko dira Bapigabonak urtarilaren 4an. m

Informazio gehiago: 94 491 43 57



**VIEJO**  
kopak eta giro jatorra  
Alangobarrri, 4 Tel. 94 460 30 03  
ALGORTA



**amesti**  
abrak proiektuak  
Berrikuntzak Eraikuntzak Etxebizitzak Lokalak Bulegoak  
Basagoiti etorb. 56  
48.991 Algorta  
Tel. 944 915 298  
Fax 944 915 299  
amesti@amesti.com

**Eva Calle** > Algortako dendaria

"Gure kexa eta eskaerak ez daukate inolako erantzunik"



Basagoiti etorbideko 46. zenbakian dago Kid's umeentzako arropa denda (Algorta)

**Basagoiti etorbidean dagoen Kid's dendako merkataria da Eva Calle. Umeentzako arropa saltzen du: jaioberrientzako jantzietatik hasi eta 16 urte bitarteko gazteentzako arropa eros daiteke bertan. Diseinu eskusiboko jantziak, surf moda edota marka ezaguneko arropa eskaintzen du: Kenzo, Timberland, Oxbow, Quiksilver... Baina Algortako txikizkako merkataritza ez dago garairik onenean, eta horren gainean jardun dugu beragaz.**

—Garai txarrak merkataritza txikientzako.

—Garai latza benetan. Beste merkatariaz hitz egiten duzu eta denok berdin pentsatzen dugu, merkataritza-ganberara zuzendu ditugun kexak eta eskariak ez daukatela erantzunik, ezta udalaren aldetik ere. Merkataritza txikiek traba asko ditugu: merkatal zentroa hurbil-hurbil dago, erosteko ohiturak aldatu egin dira, Algortan ez dago aparkatzeko ia lekurik... Basagoiti etorbidea alde batera utzi dute, metro geltoki ondoko guneari eman zaio lehentasuna, hori da gaur egun, Algortako merkataritza gune nagusia. Bestalde, argiztapena txarra da, komertzio eta tabernek neguan argiak amaituko bagenu, ilunetan lotuko litzateke etorbidea, baita inguruko kaleak ere. Gaur egun Algortako txikizkako merkataritzaren egoera hain larria izateko arrazoiak asko dira, baina

batez ere, merkatal zentro handi bat oso gertu daukagula, eta saltokietara hurbiltzeko ez dagoela ia aparkalekurik, hori desabantaila larria da. "Norbaitek" lagundu behar gaitu. Bestalde, jendeak uste du komertzio bat daukazulako enpresario bat zarela, eta denda daukazun lekuan edukitzea onuragarria dela. Hori ez da egia, saltoki asko itxi dira Algortan. —Zein litzateke konponbiderako bidea?

—Agian aparkalekuarena. Orain dela ez dakit zenbat urte Tellogorri plaza azpian aparkaleku bat egiteko proiektua egin zuen udalak, baina geldi dago, ez aurrera ez atzera. Beste bideren bat egongo da udala eta merkatariaz batuz gero, ez dakit, bezeroei ordu bateko TAOa doan eskaini. Basagoiti etorbide honek auke-

**"Oso aparkaleku gutxi dago, hori da egoera larri honen eragiletako bat"**

ra handiak eskaintzen ditu, ekitaldi kulturalak antolatuz-edo bultzada handia eman dakiok. Bestalde, herritarrei herriko saltokiak ezagutzera eman beharko litzokie udalak. Baina, alde batera utzi gaituzte. Udalak ez badaki herriko txikizkako merkataritza zelan suspertu hurbildu dabila komertziantengana. Nik uste udalaren aldetik arduragabekeria eta interes falta dagoela txikizkako merkataritza sustatzeko, lagundu beharrean, mugak ipintzen dizkigu. m

# Oparitu euskaraz

**Euskarazko produktuen** zerrenda luzea biltzen duen katalogoaren **15.000 ale banatu** dira herrian



Katalogoaren azala

**Gabonak** denon pentsamenduen ugazaba dira dagoeneko, eta opariak dira euren aurkezpen-itxura. Kaleak eta arbolak mendean hartu dituzte, eta telebista, irrati, prentsa, erakuslehoi eta abar paper deigarriakaz eta begizta koloredunakaz bildu dituzte. Euskaraz ere opariak dakartza besapean Gabonetan, asko eta asko dira Olentzerok helaraziko dizkigun erregaluetak. Hala ere, Olentzerori euskararen opariaren eskaria egiteko gutuna oraindik bidali ez duenak Euskarazko produktuen katalogoa eskuan hartu eta bertan aurkituko du zer eskatu. Euskaraz plaza-ratutako produktu berrienak eta euren gaineko informazioa batzen duen argitalpena bidaliko du getxoarren etxeetara

udalak, baina leku publikoetan ere eskuratu ahal izango dira. Uribe Kostako gainontzeko udalerritan ere banatuko dira 10.000 katalogo 0-18 urte bitarteko haurren eta gazteen artean; Getxon, zehatz-mehatz, 15.000 ale.

**Katalogoa sarean**

Musika, informatika, filmak, liburuak, jostailuak... euskarazko produktuen zerrenda luzea batzen du katalogoak, euskaraz zer oparitu badagoela jakinaraztea da horren helburua. Bestalde, katalogoa euskarri elektronikoa ere ipini dute, Getxo udalaren webgunean katalogoa ikusteko loturak daude. m

[www.getxo.net](http://www.getxo.net)

# AHOBI SARIEN BANAKETA HILAREN 22AN EGINGO DA GETXO ANTZOKIAN

Algortako Bertsolari Eskolak (ALBE) eta Euskara Zerbitzuak antolatuta AhoBi sari banaketa egingo da abenduaren 22an Getxo Antzokian. Xabi Paiak ipiniko dituen bertso musikatuakaz hasiko da ekitaldia 19:00etan, bertso saioa eskainiko dute ostean Egaña, Lujanbio, Iturriaga eta Elortzak; Peio Unzurrunzaga, ostera, gai jartzaile izango da. Izan ere, gai jartzaileta sarituko du aurten AhoBi-k, gai jartzaile ibilbide luzea egindakoak hain zuzen: Alfontso Irigoien zena, Jose Mari Iriondo, Jose Mari Aranalde, Bernardo Mandaluniz, Laxaro Azkune, Mikel Taberna, Joxepa Madariaga, Nikolas Zeberio eta gai jartzaile hain ezagunak eman dituen Mungiaiko Bertso Eskola dira aurtengo sarituek.



AhoBi sarietako ikurra

# GETXO IZENA IPINI DIOTE SAHARAKO ESKOLA BATI

Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoko Hezkuntza ministro Bachir Mustafa Sayed-ek orain dela gutxi Getxon egindako egonaldian azaldu legez, "Getxo" izena ipini diote Aiun-go kanpamenduetan zaharberri duteen eskola bati. "Adreilu bat, euro bat" lelopean egindako kanpainari esker eraberritu dute Lehen Hezkuntzako eskola, eta horrez gain, udalak eta getxoarren Saharako herriari ematen dioten laguntza eskertu zuen Sayed-ek.



**cianoplan S.A.**  
global printers  
Villa de Pientzia 6. zbk  
Antiguo Golf - Getxo  
Telefonoak: 944 64 90 87  
944 64 86 91  
<http://www.cianoplan.es>

- Inprimatze eta plano kopia.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiatze kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!



## [leioa]

**Ander Gardezabal** > eskalatzailea

“Bizitzeko era bat da; leku batera bidaiatu, ezagutu eta bertako pareta igo”

**Ander Gardezabal eskalatzailea**  
Leioako kiroldegiko boulderran ibiltzen da gazteei irakasten Bizkaiko Federazioak antolatutako eskolan. Gaztetan mendizale amorratua, ikastolako irakasle bati esker hartu zuen horretan zintzilikatzeko zaleatasuna. Zaleatasuna gaintuz, ordea, eskalada “bizitzeko era” bihurtu da 20 urtez kirol honetan jardun duen gatikar honentzat



Ander Gardezabal

—Zein da zuretzat eskaladaren zentzua?  
—Bizitza osoa. Gaztetik hasi eta lehengo filosofiarekin (bidaiatu eta eskalatu) ulertzen dut eskalada. Leku batera bidaiatu, ezagutu eta bertako pareta igo. Bizitzeko era bat da ez kirol soil bat. Orain jendea gehiagotan doa emaitzak lortzera, filosofia hori aldatu egin da.

—Ze ezaugarri behar dira kirol honetan jarduteko?

—Malgutasuna, pisu gutxi eta atzamarretako indarra behar dira. Hala ere, birtute horien guztien gaintetik motibazioa funtsezkoa da. 7a edo 7b maila hartzeko ez da behar birtute berezirik; konstantea izatea eta indarra hartzen joatea.

—Zenbat denbora eskaintzen diozu?

—Astean sei egun bi edo hiru orduz. Etxean boulderra daukat astean zehar entrenatzeko, eta asteburutan haitzean es-

kalatzera joaten naiz.

—Arriskutsua al da?

—Orokorrean ez. Lau edo bost gauza kontrolatuta ez dago arriskurik. Gertatzen diren istripuak hanka-sartzeak izaten dira. Orokorrean ez, baina, oinarrizko prestakuntza beharrezkoa da; harria ezagutu, laguna aseguruatu,... Gainera, oso komenigarria da hasieran aditua den jendearekin joatea.

—Bizi izan duzun arriskurik handiena?

—Ez dut arrisku une handirik pasatu. Behin errapel aske batean soka luzera txarto kalkulatu eta lurretik zenbait

metrora zintzilik geratu nintzen. Gainera, iluntzen zegoen eta berriro atzera egin behar izan nuen. Bestetik, ikusi egin dut nire ondoko baten bat lurretik 30 metro altueratik erortzen.

—Zein da igo duzun hormarik zailena?

—Honkey Tonkey Oñatiko Araotz auzoan. 8c mailakoa da. Gero, badaude maila gutxiago dutenak baina gehiago kostatu zaizkidan hormak.

—Etorkizunari begira...

Adin batera helduta aldatzen zoaz. Lehen, agian 9a esango nizuke. Orain, ordea, nire helburua gaur dudana maila sei edo zazpi urtez mantentzea eta disfrutatzen jarraitzea.

—Zelakoa da Leioako boulderra?

—Leioako boulderra Bizkaiko onenetarikoa da. Hala ere, beste probintzietan dau den instalazioekin alderatuz nahiko atzerturik gaude. Bizkaian errokodromo handi bat beharrezkoa da. Iruñean, esate baterako, Rocopolis dute. Izena berak esaten duenez, eskaladarako zentro erraldoi bat da.

—Eskaladaren egoera?

—Ona. Modan dagoela esan dezakegu. Lehen ez zen Josune Bereziarturik edo Iker Pourik ezagutzen, eta orain komunikabideetan agertzen dira. Hala ere, politikoei jakin behar dute eskalada jendearek ezagutzeko eta zaleatasuna bultzatzeko instalazioak behar-beharrezkoak direla. m

# OPARITU EUSKARAZ

- Liburuak, musika, jostailuak, informatika...
- Labetik irten berri diren produktuak
- Laster zuen postontzietan
- Eta INTERNETen ere bai:

[www.Bizkaia.net/Kultura/Euskara/eu\\_euskara.htm](http://www.Bizkaia.net/Kultura/Euskara/eu_euskara.htm)

**ARGITARATZAILEA:**

**LAGUNTZAILEA:**

Bizkaiko Foru Aldundia  
Kultura Saila

**ERROTULOAK**

**ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK egiten ditugu**

**THE BEST**

e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

**udondo**

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2  
T: 94 463 00 45 - LEIOA



Jon Muniain eta Txema Ibañez > Erandioko basozainak

## “Basoak eskaintzen digun gozamina ez da dirutan neurtzekoa”

**Erandiok** badu inguruko herriek ez duten aberastasun bat: 170 hektareako udalaren jabetzako mendialdea, antzinako herri mendien hondarra. Hortxe dago Akarlanda parkea, eskualdeko zein ezkeraldeko jende askorentzat aisialdiko gune garrantzitsu bihurtu dena. Baina jende askorentzat herriko mendiak ezezagunak dira eta basozainengana jo dugu, herriaren azalera osoaren %10 hartzen duen eremu horren egoera zertan den jakin guran.

Parkeak 30 hektarea ditu eta uda partean 3.000/4.000 lagun batzen dira bertan astebururo. Euskadiko aisialdirako parkerik bisitatuena da eta kudeaketa Diputazioaren esku dago. Herriko mendien garapena, ostera, Udalaren esku dago eta zer asmo duten galdetu diegu basozainei: “*Guk geuk mendiaren erabilera anitzaren aldeko apustua egingo genuke. Aisialdia, bertako hostozabalen*

**«Erandiok badu inguruko herriek ez duten aberastasun bat: 170 hektareako udalaren jabetzako mendialdea»**

*produkzioa eta nekazaritzarako erabilera uzartu daitezkeela uste dugu eta bide hori proposatu dugu. Baina Diputazioaren asmoak parkeari begira daude eta parkeari gero eta lotuago egongo dira inguruko basoak ere”.*

Herriko mendietan egiten dabiltzan lanen inguruan honakoa azaldu digute: “10



Argazkian, Jon Muniain eta Txema Ibañez

*urtean ez da ezer egin eta orain dela bi urte ekin zion Udalak berrin basolanak egiteari. Asuridin 16 hektarea birlandatu ziren eta aurtengo neguan beste horrenbeste landatuko da Kanabisun ostozabalez: bertoko haritza, haritz amerikarra, pagoa, gaztainondoa eta abar. Landaketak egiteko orduan kontuan hartzen dugu sute arriskua nondik etor daitekeen eta bitartean larrea uzten dugu. Loiu aldetik mendia eukalitz beteta dago eta sua eukalitiadi batean sartzen bada ezin da gelditu. Guk halako hesi bat ipini behar dugu gure basoak babesteko”.*

Udalak 90.000 euro inguru inbertitzen duela urtean basolanetan eta herri basoak

epe luzerako inbertsioa direla azpimarratu nahi dute biek ala biek. “*Honetan ezin da ikuspegi laburrak jokatu. Hogei urte beharko dira orain landatutakoak baso forma hartzeko eta 60 urtean egongo da masa hau guztiz garatuta”.*

Jonek dioenez “*gure basoetan urtaro bakoitzak bere kolorea du, hegaztiak eta bestelako animaliek bizilekua dute eta basoak eskaintzen digun gozamina ez da dirutan neurtzekoa”.* Txemak dioskenez, kudeaketa moduak eta erabilerak ematen dio publikotasun izaera herri mendiari. Horrela, “*mendia nahiz eta publikoa izan politikari baten eskuetan mendi partikular bezala kudea daiteke”.* m

## 2005eko aurrekontuak

onartu ditu Udalak



Astrabuduko futbol zelai berriak egiteko dirua jasotzen da 2005eko Udala Aurrekontuetan

**la 30 milioi** euroko aurrekontuak onartu ditu Udalbatzarrak datorren urterako, gehiengo osoa duen EAJ-EA koalizioa hamabi zinegotzien aldeko botoekin.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuz ez dakar aldaketa nabarmenik, baina azpiegitura berriak sortzeko eta daudenak hobetzeko edo zerbitzuak emateko egingo diren inbertsioak handiagoak izango dira. Atal horretan sartzen dira kirol instalazioak, euskaltegia, liburutegia, Kzgunea, metroaren gainaldeko zabalguena urbanizatzea eta abar.

Alkatearen esanetan, egingo den inbertsio erreal guzti-guztia herritarren eskariei erantzuteko izango da, esaterako, Astrabuduko futbol zelaiaren proiektua edo herriko bideen konponketa. Udalaren sarreara propioak ez direla gastu finkoak handit-

zen diren hein berean handitzen eta egoera hori kezagarria izanik, hausnarketarako bidea ireki behar duela azaldu zuen alkateak. Zentzu horretan, aurrekontuaren %31,3 langileen ordainketetan gastatzen dela azpimarratu zuen Ogasun Saileko arduradunak.

Oposizioak bere aldetik, ezer hitzartu nahi ez izatea eta sinesgarritasun falta leporatu zion agintean dagoen taldeari, aurreko ekitaldietan aurreikusitako gastu zati handi bat gauzatzeko gaitasunik izan ez duelakoan. Ezker Batuak aurkeztutako osoko zuzenketak ez zuen aurrera egin eta Udalbatzara une batez etenda ere geratu zen legez kanpo utzitako Erandioztarrak plataformako kideek euren iritzia eta botoa emateko eskubidea aldarrikatzean. m

iritzia



Marian de la Fuente  
Berbets elkarteko kidea

## Udalak etxeko lanak egin behar ditu

**A** benduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta ospakizun horren jatorria gogoraraziz, euskara nagusi duen orritxo elebiduna bidali digu Udaleko Euskara Zerbitzuak etxera. Detalle polita. Horrekin batera, baina, Udaleko Gizarte Ekintza Sailak antolatutako ekitaldi sorta baten berri ere jaso dugu gaztelania hutsezko beste orri batean eta hase-erretu egin gara, badirudi eta udaletxean Euskara Zerbitzuaren kontua baino ez dela euskara.

Kultura Sailak dirulaguntzak emateko araudia egin eta ez du inon hizkuntza irizpiderik jasotzen, trafikoa beste modu batera antolatu behar eta seinaleak erdara hutsean jartzen dituzte. Alferrik da herritar batek Udalarri behin eta berrito gogoraraztea seinale elebidunak jartzeko derrigortasuna duela. Urtebete ondoren seinaleek bere horretan jarraitzen dute. Horrelakoetan zer egin behar dugu, seinaleak hartu eta udaletxera eroan? Atxilotu egingo gaituzte seinaleetatik hurbil dagoen polizia etxekoek? Eta zer egin behar da kartelak erdaraz egiteko agindua eman duenarekin eta egoera hori aldatu nahi ez duenarekin? Kasu honetan ez al da legea bete behar?

Nik ez dakit zertan gabiltzan gu Udalak bultzatutako Euskararen Aholku Batzordean Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, Kudeaketa Plana eta ez dakit zelako plan potoloak landu nahian, Udala agintariak ez badute bide horretan atxikimendurik erakusten.

Euskara Zerbitzuaren lana alferrikoa izango da ardurak dituzten politikariek ez badute euskarari lekua egiteko ez gogorik ezta gutxieneko konpromisorik hartzeko asmorik ere. Euskara Zerbitzuak, beste ezer baino lehen, arduradun politikoen motibazioa landu beharko luke eta bide batez gogorarazi gure herrian bi hizkuntza ofizial ditugula, hizkuntza ofizialeko bat euskara dela eta euskaldunoi euskaraz egitea zor digula administrazioak. Eta gauza bera funtzionarioekin, goi karguak dituztenekin hasita. Baina ez dezagun datorren urteko Euskararen Egunera arte itxaron etxeko lanak egiten hasteko. 4

moda gaztea opariak

**IRATI**

Torrene 2, ALGORTA  
T. : 94 491 12 71

**Basolanak**

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa  
**DEITU!**

T. 94 467 17 13  
F. 94 467 42 41  
ERANDIO (Bizkaia)  
Mobila  
Asier: 629 411 838  
e-posta: basolanak@terra.es

## ABESBATZEN KONTZERTUAK ASTRABUDUAN

Aurreko urteetako ohiturari jarraiki, abenduaren 28, 29 eta 30ean Gabonetako XVIII. Kontzertu Jaialdia egingo dute Astrabuduko San Lorenzo elizan, Abots Alai abesbatzak antolatuta. Emanaldiak arratsaldeko 20:00etan izango dira eta ondoko abesbatzek parte hartuko dute: Asteartean, Maite Goruntz abesbatza (Eibar), Urretxindorak (Bilbo) eta Bermeoko abesbatza. Asteazkenean, Zamudioko Kamara Korala, Zornotza abesbatza (Amorebieta), eta San Inazio abesbatza (Bilbo). Ostegunean, Euskeria abesbatza (Bilbo), Lagun Beti abesbatza (Barakaldo) eta Abots Alai abesbatza (Astrabudua).



## UDALAK 11.350.000 BAT EUROKO AURREKONTUA EDUKIKO DU 2005EAN

EAJren aldeko botoagaz, PSEren abtentsioagaz, eta AS, EB eta PPren kontrako bozkagaz onartu dira 2005eko aurrekontuak. Aurtengo aurrekontuagaz alderatuta %13,54 egingo du gora datorren urtekoak eta 11.349.438,25 eurokoa izango da. Horra hor, udalak datorren urtean egingo dituen inbertsio handien zerrenda: lurpeko zaborrontziak, dolmenen ibilbidea, Loroño eraikinaren eraispina, Atxabiribil hondartzarainoko bidea, Arrietarainoko bidegorria, energia eolikoa sortzeko sistema, edota Sopelbusa. Gazteen alorrerako bideratuko den aurrekontuaren zenbatekoak ere gora egingo du 2005ean.

Sopelbusa bultzatuko du udalak



## KLUBEN ARTEKO BIZKAIKO TXAPELKETAN GARAI ETA ZISKAR NAGUSI

Patxi Ziskarek eta Gotzon Garaik eskuratu zuten Mungia pilotalekuan Kluben arteko Bizkaiko XIV. Pala Txapelketa. Senior mailan izan ziren irabazle Garai eta Ziskar. Galtzaile zirela eman zuten partidaren lehenengo txanpa sopeloztarrek, 1-10 eta 11-22 emaitzakaz, 27na berdindu zuten gero, eta azkenean 45-39 gailendu zitzaizkien Sestaoko Lagun Artean klubeko Garcia eta Egari. Gauzak horrela, Ziskar eta Garairen eskutik txapela etxeratu zuen Sopelanako Kurene klubak.

## Ikasbidaia Tinduf-en

Saharakoak eta Ander Deunakoak senidetu dira



Ander Deunako ikasleak Tinduf-erako hegazkinaren zain Loiu

**Saharako eskola** bat eta Sopelanako Ander Deuna ikastola senidetu dira orain dela gutxi. Abenduaren 3an Ander Deunako ikasleek hartu zuten hegazkina Loiu, Tindufeko kanpamendu saharaiak zituzten helmuga. Izan ere, ezohiko ikasbidaia egin dute sopeloztarrek aurtun; ohikoa ez, baina beste asko baino hobea seguruenik. Elkartasuna aukeratu dute aurtun Ander Deunakoek dibertimendu soila beharrean. Euren adin beretsukoak izan dituzte gogoan, egoera latzean bizi diren urrutiko lagunak, alegia. Sei ordenagailu, eskolako materiala eta opari bat besapean zera-

matzatela hartu zuten hegazkina, eta ikasle saharaiaren hezkuntza eta irakaskuntzarako baliabideak eramatea zen euren helburua. Kolkua emozio, elkartasun, eta bizipen berri eta ahazteaz beteta zekartela itzuli ziren Ander Deunako ikasleak eta begiraleak. Horrela, Sopelanako ikastola eta eskola saharai baten artean senidetasun harremana betiko sortu dutela jakinda bueltatu dira.

*Zergatik Olentzero ez da pasatzen Afrikatik?* galdetzen du abestiak, eta asko ez bada ere, oraingoan Olentzeroren opariak Sahararaino heldu dira Ander

Ronald E. Guenther > sortzailea

“Uribe Kostako haizearen erabilgarritasunaz jabetu behar dugu”



Guenther, zutabe eolikoak ipiniko diren araztegi ohia atzean daukela

**Ronald Erich Guenther** Kassel (Alemania) inguruko herri batean jaio zen eta 15 urte baino gehiago daroaz Sopelanan bizitzen. Banku batean egin zuen lan unibertsitateira joan aurretik, eta Ekonomia ikasketak egin zituen gero. 1983an (uriolen garaian) ezagutu zuen estreinekoz Euskal Herria, baina gurean eguzkiak gozatzeko aukera gutxi izan zuela eta Saloura joan zen ondoren, eta han ezagutu zuen emazte euskalduna. Orain oster, ez Alemanian ezta Mediterraneo aldean ezingo lukeela bizi aitortu du, *“hau da lekunik politena eta egokiena, ez dut bilatzen jarmaituko”*.

Sopelmarren bizi da eta egunero-egunero inguru horretan dabilen haizeak liluratu egiten du. Alde horretako eta, oro har, Uribe Kostako haizeari sasoitsua bakarrik ez, oso erabilgarria ere badela deritzo. Horregatik sistema eoliko bat ipintzeko proiektua aurkeztu dio Sopelanako udalari. *“Araztegi ohiaren gainazalean 4-5 zutabe ipin daitezke, 4 metroko altuerakoak. Zutabeok barruan helizeak daukate, haizeak helizeok bultzatu eta sortzen den*

*energia behean legokeen sorgailuak batuko luke”*. Urtean 2,5-3,5 bitarteko kilowatioko energia lor daiteke sistema hori erabilia, eta Guentherrek azaldu legez ohiko sistema eolikoak baino hobea da: *“Ez dira hegal handi horiek dituzten haize-errotak, ez, helizeak zutabeen barrutik doaz eta ez dira ikusten, horrek, esaterako, txorien istripuak murrizten ditu, sortzen duten zarata txikiagoa da, eta paisaia ere eragina ez da hain handia”*. Gainera, zutabeak Sopelanako banderaren koloreakaz margoztu daitezkeela dio. Bestalde, sistema eoliko horrek sortuko duen energia handitzeko, leku berean eguzki panel batzuk ere jartzea proposatu dio udalari.

### Informazio zentrua ere bai

Araztegia aproxtatuz, bertan energia alternatiboen informazio zentrua eta kafetegia bat egiteko ideia luzatu du eta enpresek ere probetxua eduki dezaketela aurreratu digu, *“zutabeok ipintzen, mantentzen, publikizateagaz ...”*. Proiektu honengatik ideiarik onena-ren Txopel saria eskuratu du. m

OSABIDE HORTZ KLINIKA  
Aranza Etxebarria

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Periodontzia  
PADI

Bidebarri 27, behea eskua. ALGORTA 94 94 430 76 96




- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana  
Tfnoa.: 946760266 - Email.: [sopela@ikastola.net](mailto:sopela@ikastola.net)

## JATETXE BEGETARIANO

- Eguneko menuak
- Asteburuetan menu bereziak

Sertutua 4, Sopela  
Telf. erreserbak: 645 732 991



## 4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

LAIAK Taberna

Zorionak eta urtebarri on sopeloztar guztioi!!!

Bentatxu, 2  
48600 Sopela  
Tlf. 94.6760328



**MANIKANA BAT EKITALDI ANTOLATU DIRA GABONETARAKO**

Lantegiak, pailazoak, antzerkia, irteerak... hamaika ekitaldi antolatu ditu Berangoko Kultur Etxeak Gabonetarako. Abenduaren 26an *Poxpolo, Mokolo eta konpania* pailazoan ikuskizuna egongo da eguerdian, eta arratsaldean "Olentzero nik nahi nuke... makila magiko bat" antzerki lana. Abenduaren 27an haurrentzako PINera irteera prestatu dute. Abenduaren 28an eta 29an Gabonetako Parkea paratuko dute pilotalekuan. Gura duenak Euskadi-Honduras futbol partida ikustera joateko aukera edukiko du hilaren 29an. Abenduaren azken egunean Gorbeara mendi irteera egingo da. Urtarrilaren 2an Arriaga Antzokian (Bilbo) antzeztuko den *Spiderman* lana ikustera joateko irteera aurreikusten da, eta dantzaldia egongo da pilotalekuan. Amaitzeko, zenbait egunetan lantegiak egingo dira Ludotekan: abenduak 30 eta 31, urtarrilak 3, 4, 5 eta 7 (11:00-14:00).

**6 MILIOI EUROKO AURREKONTUA EDUKIKO DU UDALAK 2005EAN**

Berangoko udalak 6.094.512 euroko aurrekontua edukiko du 2005ean. EAJ eta EAren aldeko bozkakaz onartu zen aurrekontua, Ezker Batua eta PP-k aurkako botoa eman zuten eta PSE abstentitu egin zen. Basotxu eta Angxaneko auzoak goitiki behera konpontzeko diru nahikotxo erabiliko du Udalak. Kultura sailera eta Aukera Bedintasunerako zuzenduko diren partidek, batak zein besteak, %20ko igoera edukiko dute 2005ean. Euskara Biziberritzeko plana bultzatzeko 110.000 bat euro bideratuko dira. Aurrekontuaren sarrera orokorren %0,4 garapen lankidetzako proiektuetara bideratu da momentuz, baina urte amaierarako %0,7ra hurbiltzea da Udalaren asmoa. Ezker Batuak aurrekontuak "atzerakoiak" eta "aberatsen mesederako" izatea egotzi dio Udalari.

**Mimenaga eta Larrabasterra**

lotuko dituen zubia eraikitzeke lanak hasi dira



Mimenaga ingurua

**Uribe Kostako** korredorearen hirugarren eta azken zatia osatuko duten lanak egiten hasi da Bizkaiko Foru Aldundia. Hau da, korredorearen egitasmoaren barruan egingo den zubietako bat eraikitzeke beharrak hasi dira dagoeneko. Mimenagako biribilgunean hasiko da zubia eta Larrabasterraino helduko da, Larrabasterrako zubia dagoen guneraino (metroaren alboan). Bizkaiko Foru Aldundiak 37 milioi euro bideratu ditu bidetarte hori egiteko, eta bi urte barru-edo egongo ei da amaituta.

Zubiak norantza bakoitzeko bina bide edukiko ditu, eta 2km-ko luzera. Zubiaren

eraikuntzagaz bidetarte horretan ohikoak ziren trafiko arazoak konponduko direla uste dute arduradunek. Bide hori aukeratuz gero, Berangora sartu gura duenak industrialdetik egin beharko du.

**Bidegorria eta oinezkoentzako bidea**  
Eraikitzen dabilten bidearen alboetan txirindularientzako bidegorria eta oinezkoentzako bidea ere egingo dute. Hala, Getxon hasten den bidegorriak eta oinezkoentzako bideak jarraipena edukiko dute, eta bizikletaz zein oinez hondartzetaraino heldu ahal izango da. m

**Aratz dantza taldea > 25. urteurrena**

"Jendea gogoz egotea, gozatzea, hori da hainbeste urte irauteko sekretua"



Olentzero egunean dantza egingo dute Aratz taldekoek Gorlizen

**Zilarrezko ezteiak** ospatuko ditu Gorlizko Aratz dantza taldeak urte berria hasteagaz batera. 1980an bi neskek, dantzan ikasteko gogoia zeukatela-eta, iragarki batzuk ipini ei zituzten herriko kaleetan. Horiei erantzunez 20 bat lagun batu ziren eta jota zein arinarina izan ziren ikasi zituzten lehenengo dantzak. Orduantxe jaiotzen Aratz dantza taldea, eta 1980ko Santiago jaietan dantzatu zuen lehenengo aldiz.

Gaur egun, 80-90 bat dantzarik dihartute taldean, 6 urteko txikienetatik hasi eta nagusien talderaino. Andrazkoak dira gehienak, dantza talde ia gehienetan legez, eta txiki-txikien, txikien, ertainen eta nagusien andrazko taldeak daude. Gizonezkoek dago kienez, txikien eta nagusien taldeek bakarrik dihardute.

25. urteurrena ospatzeko ekitaldi bat prestatzeko asmotan dabilta, uda partean-edo egingo litzatekeena. "Bertan lehenengo dantzariak eta onaingoak batzeko asmoa dau-

kaigu eta dantzaldi bat eskainiko dugu, baina data zehatza onaindik ez dakigu", azaldu digu Aratzeko zuzendaritzako kide batek. Baina, hori baino lehen, Olentzerogaz daukate zita abenduaren 24an 18:00etan Gorlizen; eta handik ordu batera Plentzian (Eliza plazan). Bestalde, dantzan egiten ikasi gura duenak badauka oraindik ere horretarako aukera: zapatu goizetan Iberrebarri enparantzako dantza taldearen lokaletara jo besterik ez du egin behar.

**Eskerrak denei**

Urte hauetan guztietan Aratzeko dantzari eta laguntzaileei eskerrak eman diete arduradunek "onain arte parte hartu duten guzti-guztiei, eta zergatik ez etorkizunean parte hartuko dutenei". Hainbeste urte irauteko sekretua zein den galdetuta zera erantzun dute: "jendea gogoz egotea, egiten dutenaz gozatzea, eta dantza ikasi bai, baina gozatu eta ondo pasatuz". m

**KURKUDI LIBURUDENDA**

**Euskarazko irakurgai**

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA  
T: 944 913 402



**TXIBERRI edantokia frontoi partikularra**

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15



**SPL BAR ESPUELA ITURRIBIDE**  
• PINTXO GOGO-EGOSIAK 08  
• OSTEGUN KULTURALAK  
• ASTEBURUTAN MARTXOLA  
• TELEFONOA: 944150565  
• ITXURALDATURIK HATOR.  
ELKARTOKIA ETA GIRO XITORRA

**Lacofris, s.l. SERVITEC**  
• MARKA GUZTIAK  
• 24 ORDUTAN ERANTZUNA  
• 3 HILABETEKO GARANTIA  
& 94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

**BEROGAILU ETA ITURGINTZA**  
**HIRURAK**  
T: 430  
Sarikobaso 15

**krimea**  
Negubide 13  
Tel. 94 463 61 82  
**AREETA**



## IPIIN LEHIAKETAREN SARI BANAKETA URDULIZEN

Uribe Kostako Mankomunitateak antolatu duen Ipuin lehiaketaren sari banaketa Urdulizen egingo da, abenduaren 22an, eguaztena. Hitzordua Urdulizko Kultur Etxean ipini dute. Bestalde, hilaren 23an eta 24an Gabonetako umeen parkea paratuko dute Antsoneko plazan.

## UMEEI ZUZENDUTAKO EKINTZAK BARRIKAN

Abenduaren 28, 29 eta 30ean umeentzako hainbat ekintza antolatu dituzte Barrikan. Lehenengo egunean "Marilur-ek 5.722.630 ipuin dakizki" ikuskizuna egongo da, bigarren egunean Monda Lironda pailazoek jardungo dute, eta azken egunean "Kontu kontari!" ikuskizunaz gozatu ahal izango dute umeek. Hiru ekitaldiok Barrikako liburutegian izango dira, eguerdiko 12:00etan.

## EKITALDI PILOA EGINGO DA LEMOIZEN GABONETAN

Umeentzako lantegi desberdinak antolatu dituzte: Gabonetako postalak idazteko, maskara eta txanoak egiteko... Lantegiok abenduaren 21, 22 eta 27an egingo dira Armintzako Kultur Etxean. Hilaren 28an Auskalo antzerki taldeak ikuskizuna emango du Armintzako frontoian. Eta hilaren 30ean ludoteka ibiltaria egongo da Urizarren.

## PLENTZIA

### Olentzerori eskainitako ikuskizun itzela



Gazte plentziarrak ikuskizuna prestatzen

**Plentziarrek**, urtero legez, harrera bikaina egingo diote Olentzerori abenduaren 24an. Kalejira "Batela" deritzon plazatik irtengo da arratsaldeko 18:00etan, euskal mitologiako pertsonaiak protagonista izango dira eta Plentziako zantzar taldeak joare doinuakaz alaituko du ibilbidea. Olentzero idiek bultzatutako gurdian joango da Elizako plazaraino. Bertan lamiek, sorginek, txalapartariak, zantzarrek, artzainek... antzerki ikuskizuna emango dute. Gorlizko Aratz dantza

taldeak aureskua eta kaxarranka dantzak eskainiko dizkio Olentzerori, datorren urtera arte agur esan baino lehen.

Gotzon Perez eta Miren eta Elisabete Erkorekaren ekimenez jaio zen ikuskizuna orain dela 25 urte baino gehiago. Eurekaz batera Iñigo Aspionza dabil antolatze lanean aurten, baina ia 300 dira ekitaldian parte hartzen duten herritarrak: musikari, antzezle, dantzari... Den-denen laguntzagaz ekitaldi itzela antolatu dute aurten ere. m

# Abenduaren 31ra arte

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

## ANTZERKIA

### GETXO

► **Olentzero: Nik nahi nuke...** Umeentzako antzerkia. Getxoko Antzerki eskola. Getxo Antzokia. Abenduak 21, 22, 23 eta 24.

### LEIOA

► **Jostailuen Historia.** Euskaraz. Umeentzako antzerkia. Teatro Paraiso. Kultur Leioa. Abenduak 27, astelehena. 18:00. Sarrera: 3 euro.

► **Papirus.** Umeentzako antzerkia. Xirriquiteula. Kultur Leioa. Abenduak 28, martitzena. 18:00. Sarrera: 3 euro.

► **Groau.** Euskaraz. Umeentzako antzerkia. Hika. Kultur Leioa. Abenduak 29, eguaztena. 18:00. Sarrera: 3 euro.

► **Splash.** Umeentzako antzerkia. Yllana. Kultur Leioa. Abenduak 30, eguena. 18:00. Sarrera: 3 euro.

### BARRIKA

► **Marilur-ek 5.722.630 ipuin dakizki.** Ipuin kontalaria. Liburutegia. Abenduak 28, martitzena. 12:00.

► **Kontu Kontari!** Ipuin kontalaria. Liburutegia. Abenduak 30, eguena. 12:00.



Umeek primeran pasatzen dutela zalandarik ez daukagu

### ► Getxolandia

#### Umeen paradisuak laster zabalduko ditu atak

Gabonetako jolas-parkea, Getxolandia prest dago umeen barre, nahi, zein irriken jaun eta jabe izateko. Hilaren 22an arratsaldean zabalduko ditu atak, eta gainontzeko egunetan goizez eta arratsaldez (11:00-14:00 eta 17:00-21:00) izango da umeen jomuga eta topagune. Hala ere, bi egun "beltz" edukiko ditu Getxolandiak: abenduak 25 eta urtarrilak 1, egun horietan itxita egongo da-eta. 6 bidaietarako txartelak 3 euro balioko du, baina barrakez gain, egongo da non gozatua: lantegiak, ikuskizunak... Eta nagusiak, adurra dariela, umeen inbidiatan egongo ete dira berriro?

• **Non:** Areetako Geltoki plaza • **Noiz:** Abenduak 22 - urtarrilak 5

Leioaren Auditoriuma. Abenduak 25 eta 26. 20:00. Sarrera: 4 euro.

martitzena. Sarrera: 1 euro.

► **Diarios de motocicleta.** Zine komertziala. Kultur Leioaren Auditoriuma. Urtarrilak 1, zapatua, 22:00etan. Urtarrilak 2, domeka, 20:00etan. Sarrera: 4 euro.

► **El espantatiburunes.** Haur zinema euskaraz. Kultur Leioaren Auditoriuma. Abenduak 25, zapatua 19:00. Abenduak 26, domeka 12:00etan eta 17:00etan. Sarrera: 3 euro.

► **Zafarrancho en el rancho.** Haur zinema euskaraz. Kultur Leioaren Auditoriuma. Urtarrilak 1, zapatua 19:00. Urtarrilak 2, domeka 12:00etan eta 17:00etan. Sarrera: 3 euro.

► **El dia de la bestia.** Perseo zineforuma. Alex de la Iglesiai zuzendutako zikloa. Kultur Leioaren Auditoriuma. Abenduak 21, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

### BERANGO

► **Kill Bill I.** Berangoeta Kultur Etxeko Eginkizun aretoa. Abenduak 28,

## ZINEMA

### GETXO

► **Historias minimas.** Zine-Kluba. Areetako Gran Cinema. Abenduak 23, eguena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.

► **Spiderman II.** Haur Zinema. Getxo Antzokia. Abenduak 26, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.

► **El espiritu de la colmena.** Zine-Kluba. Getxo Antzokian abenduak 29, eguaztena. Areetako Gran Cinema abenduak 30, eguena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.

### PLENTZIA

► **Spiderman II.** Gazteentzako zinema. Goñi Portala. Abenduak 20, astelehena. 11:00.

### LEIOA

► **Roma.** Zine komertziala. Kultur

KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: [vasa@euskalnet.net](mailto:vasa@euskalnet.net)



**20 ANIVERSARIO**  
**URTEBURREN**

# aldai

**TAPIZTEGIA**  
**DEKORAZIOA**  
**ERAKUSKETA**  
**ETA TAIERRAK**

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA

## namaika hida

1	Kafe Antzokia Bilbo
2	Kafe Antzokia Ondarroa
3	Ondarroako Arigomir Itxas
4	Algora konpartsa
5	Zaparrada Gaztegunea
6	Eligietan Umeeguna
7	Ikastaro eta tailerrak
8	Bekakiko etxea
9	Bilbo Hiria irretia 96,0 Fm
10	Zenbat Gara aldizkaria
11	Gara argitalaritza

zenbat gara  
elkartea



[albuma]



Barrika, 2004-11-30



## San Andres eguna Barrikan

*San Andres, entremes, goizean azaroa ta arratsean ez. Azaroak azken eguna daukanean ospatu ohi da San Andres eguna, eta halantxe egin eben barrikarrek bere. Goizeko mezaren ostean, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariak santuen aurrean jardun eben, eleizpean bertsotan egiteaz apur bat harrituta, buruz-buru eukiezanak gozarazi ebezan. Ondoren, pintxo gozoakaz bete eben denek tripa. Barrikarrek, beste behin bere, San Andresak ospatzearen ohitura zaharrari eutsi deutsie eta honeek erretratuok dire horren lekuko.*

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Gipuzkoako Ibarra herrian jaio arren, Txema Ramirez de la Piscinak gasteiztarra dela dio, “*han hazi eta hezi naizelako*”. Hamar urtez kazetaritza aktiboan jardun ostean, 1990ean EHU sartu zen irakasle, eta hantxe dago oraindik. Azken boladan protagonista dugu, arrazoi bikoitzagatik gainera. Batetik, azaroaren 5ean aurkeztu zen *Ikus gaitzazuen*, berak idatzitako liburua. Oraindik ez badakizue zertaz diharduen, azpituak argituko dizue: *Bestelako komunikazioa: alternatiba kritikoak*. Bestetik, orain aste gutxi amaitu den I. Euskarazko Kazetaritzaren Kongresuko antolatzaileetako bat izan da Ramirez de la Piscina. Gai biak jorratu ditugu ondoko berbaldian, pentsa litekeena baino lotura estuagoa daukatela agerian utziz, bide batez.

# T. Ramirez de la Piscina

## Bestelako kazetaria

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—*Ikus gaitzazuen* kaleratu berri duzu. Zein da helburua?

—Bestelako komunikazioa, egingarria izateaz gain, guztiz ezinbestekoa dela garatzea. Bestelako mundua eraiki nahi badugu, baliabide berriak beharko ditugu, eta horien artean zalantzarik ez da komunikazioa oso garrantzitsua dela. Uste dut, eta hori da defendatzen dudana tesia, bestelako komunikazioa egingarria dela mundu honetan; komunikazio mundua oso basatia, oso merkatuaren mendekoa bada ere, beharrezkoa da bestelako komunikazio-eredua garatzea, eta hori bakarrik ez, praktikak erakutsi digu askotan baliabide gutxi erabilita ere, posible dela geure helburuak lortzea.

—Bestelako mundua, bestelako komunikazioa... Horrek esan gura du badaudela, indarrean, mundu bat eta komunikazio bat. Zer ezaugarri daukate?

—Gaur egungo komunikazioan merkaturia da jaun eta jabe. Merkatuak erabakitzen du zer den argitaragarria, zer irakur edo ikus dezakegun. Nik oihan batekin parekatzen dut mundu hori. Badakigu zein den legea oihanean: indartsuenaren legea. Errealitate hori ez dut gogoko,

noski, eta uste dut bestelako mundu bat posiblea eta beharrezkoa dela. Gaur egun, ipar eta hegoaren artean dagoen desoreka informatiboa ikaragarria da, eta hori bakarrik ez, albiste-iturri indartsuenak dira beren helburuak plazaratzea lortzen dutenak. Horren aurrean, eta baliabide gutxi erabilita ere, matxinatu egin dira beste albiste-iturri batzuk, askotan teknologia berriak erabiliz, jende aurrean agertzea eta eragitea lortu dutenak. Nik bide

### “Merkatuak erabakitzen du zer irakur edo ikus dezakegun”

horretatik jo dut. Praktikatik abiatu dut neure gogoeta, Euskal Herrikan kanpoko eta baita Euskal Herri barruko hainbat adibide hartuz.

—Eta zelakoa izan behar da bestelako komunikazio hori?

—Nik matxinada modura agertzen dut. Hau da, hipokresia, manipulazioa, merkaturaren diktadura eta gorrotoaren aurka datorren errebuta da, horizontala eta demokratikoa nahi baduzu. Han eta hemen eratuz doan sarea da, teknologia berrien abantailaz baliatzen dena, eta gai-

nera aberirik ez duena, posible izan delako munduko leku askotan.

—Euskal Herriko adibideak aipatu dituzu...

—Bai. Niretzat eredugarria da Iparraldeko demoen ildo informatiboa, baita Itoizko solidarioena ere, eta beste hainbat sektoretatik egin diren ekimenak ere bai.

—Guzti honetan zer esan garrantzitsua daukagu herri aldizkariok?

—Bai, esan daiteke euskararen komuni-

kazio-esparrua bera ere maila askotan alternatiboa dela. Kontuan hartzen badugu behintzat, zein den jaun eta jabe gure merkaturian; gaztelerazkoa, alegia. Esan daiteke alternatiboa dela, eta esango nuke komunikabide txikietan askotan askatasun gehiago dagoela. Komunikabideak zenbat eta handiagoak izan, kontrolerako tentazioa ere handiagoa izaten da sektore politiko eta ekonomikoetatik.

—Hala ere, tresna honek ematen dituen aukera guztiak baliatzen dira?

—Ez, zoritxarrez. Eta horri lotuta, Eus-



Txema Ramirez de la Piscina Leioako Kazetaritza fakultatean

karazko Kazetaritzaren Kongresuaren ondorioak aipa ditzakegu. Bertan azpimarratu den kontu garrantzitsuenetako bat elkarlan eta sinergia beharra izan da. Azken 25-30 urte hauetan gauza dezente egin dira, izugarri garatu da euskarazko kazetaritza, baina oraindik esparru asko dago garatzeke. Eta garatze fase horretan elkarlana guztiz ezinbestekoa da. Kontuan izan behar dugu gure merkaturia txikia dela. Euskal Herrian 800.000 euskaldun daude, iristen badira ere. Beraien hizkuntza-gaitasuna ez da berdina, beraien irakurketa-ohiturak ez dira berdinak... Horrek esaten digu gure eremuaren neurria zein den. Txikiak gara, baina dagoen potentzialtasuna ikaragarri handia da, oso

sektore sortzailea delako. Une honetan, euskarazko kazetaritzan 700 kazetari-edo biltzen gara. Datu garrantzitsua da, duela 30en bat urte zegoen egoerarekin konparatzen badugu. Frankismoaren amaieran euskaraz ziharduten kazetariak dozena

### “Jendeak, gaur egun, kalitateari erreparatzen dio hizkuntzari baino”

bat inguru izango ziren. Horrek esaten digu sektorea nola indartu den. Baina gabeziak ere badaude, eta handiak.

—Eta zeintzuk dira gabezia horiek?

—Batetik, kazetarien lan baldintzak oso gogorrak dira oraindik. Bestetik, administrazioek daramaten diru-laguntza sis-

tema nahiko arautu gabea da, unean unekoa. Hori dena konpondu beharra dago, eta horretarako proposatu dugu -hori da hartu diren erabakietatik garrantzitsuenaren agian- foro edo erakunde bat sortzea. Hori dena lortuko balitz, posible izango litzateke euskarazko kazetaritzaren etorkizunari begira plangintza estrategiko bat martxan ipintzea.

—Beti esaten dugu euskaraz komunikabide gutxi dagoela erdaraz daudenen aldean, baina euskarazko komunikabide gehiago egoteak ekarriko lukeen atomizazioa ez litzateke gehiegizkoa izango?

—Hori dena aztertu egin behar da. Merkatu-azterketa sakonak egin behar dira, orain arte egin ez direnak, eta aztertu ea posible ote den merkatuaren dibertsifikazioa. Guk produktuak egin behar ditugu, baina produktu horiek kalitatezkoak eta bideragarriak izan behar dute.

—Kalitateaz berba egin gura nuen hain zuzen. Aspaldi utziko genuen atzean euskarazko komunikabideak militantziagatik irakurtzen ziren garaia, ezta?

—Bai, uste dut gaur egun gizartearen nagusi diren joerak ez direla horiek. Militantziagatik zerbait erosten da, baina kalitateari erreparatzen zaio hizkuntzari baino.

—Komunikabideek badaukate hausnarketak hori eginda?

—Haien egoera oso unean unekoa da. Egunerokoari erreparatzen diote eta pro-


duktua ateratzea askotan aski heroikoa da. Baina azpian badago eztabaida hori. Guk agerian jarri nahi izan dugu, kongresuan era guztietako gaiak ikutu behar zirelako. Batzuri ez zitzaien gustatuko, agian, baina derrigorrezkoa da horretaz ere hitz egitea. m



## Elurra Algortan

Konrado Mugertza

Gure klima epelaren eraginez eta itsasoa gertu daukagunez, elurra gertaera berezia da Uribe Kostan. Geruza zuriak nekez irauten dau egun bat baino gehiago gurean. Halanda bere, elurra egiten dauanean hurrek ezin pozago olgaten dire eta herria gabon-giro antzeko baten murgiltzen da.



ALGORTA, 1998



60ko hamarkadaren amaieran hasi ziren Leioako campusa eraikitzen, eta 70ekoaren hasieran joan ziren lehen ikasleak. Gutxi, artean. Campusa ere ez zen gaur zena, noski. Urteakaz batera handituz joan zen, eta gero eta ikasle gehiago hartu zituen, gaur egungo kopuruetara ailegatu arte. Leioako campusa EHUko hiriburua da ikasle kopuruz eta tamainuz, eta errektorearen egoitza bertan dagoelako bakarrik ez. Errektore horrek berak, hain zuzen, campusaren egoera kaxkarraz ohartarazi du orain gutxi Eusko Jaurlaritzan egindako agerraldian. Beraren berbaldiko esaldi batek dioenez, 35 urte ez dira alperrik igarotzen inorentzat.

# EHUko hiriburua

## Leioa, gure campusa

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

### Datu batzuk

- **Azalera:** milioi 1 metro koadro. Eraikita: 200.000, eraikinetako solairu guztiak eta plataformak barne.
- **Ikasle kopurua:** 10.473
- **Irakasle kopurua:** 1.100
- **Irakasleak ez diren langile kopurua:** 725 gutxi gorabehera
- **Fakultate/eskola kopurua:** 7
- **Karrera kopurua:** 19  
-15 lizentziatura  
-Ingenieritza 2  
-Diplomatura 2



**EHUko campusik** garrantzitsuena Leioan dago, baina leioaztarrek ez dute hori lar igertzen eguneroko bizimoduan. Akaso, ikasleei pisuak alokeran opesten dizkietenak, baina horiek ere ez dira hainbeste. Ezin esan Leioa benetako unibertsitate-hiria denik. Ikasle eta irakasleen joan-etorria gehien igjerri lezakeen sektoreak, merkataritzak, ez du etekin handiegirik lortu campus handi bat udalaren eremuan egotetik, Jean Paul Ollmos Leioako Merkatarien Elkarteko presidenteak adierazi digunez.

Horren zergatia aipatzegaz ez dugu aparteko aurkikuntza egingo: campusa hirigunetik urrunegi dago, edozerretik

### «Campusa hirigunetik urruntzea frankismoaren estrategia izan ei zen»

urrunegi dagoela ez esatearren. Horren errua, antza, frankismoak dauka, hala onartzen duen agiriarik nekez topatuko dugun arren: 60ko hamarkadaren amaieran Espainiako estatuan eraikitako unibertsitate-campus asko, gurea barne, mendian gora daude, hiriko girotik urruntzeko asmoz edo. Holan, ikasleak zintzo-zintzo eta lasai-lasai egongo zirelakoan zeuden Francoaren estrategia-arduradunak. Baina aldarrikapenak beti aldarrikapen. 70eko ha-

markadako giroa ez zen txantxetako eta, zela garraio eskasagatik, zela egoera politikoagatik, polizia behin baino gehiagotan sartu zen campusera –garai hurbilagotan bezala, bide batez esateko–, borra eskuetan eta erabiltzeko prest.

#### Hasierako campus erdi hutsa

Hala ere, urte batzuk igaro ziren segurtasun-indarren eta Leioako campusaren arteko “harremana” gauzatzen hasi orduko. Lehen hiruzpalau urtean, egia esan, giroa lasaia izan zen alde horretatik (eta gainerakoetatik ere bai). Isolamenduak lortu ez zuena, txikitutasunak lortu zuen, izan ere.

Eduardo Angulo Zientzia eta Teknologia Fakultateko irakaslea da 1978tik, eta aurrez ikaslea ere izan zen. Gogoratzen duenez, “1971n hasi ginen lehen ikasleak han. Fakultate bi baino ez zeuden: Zientzia eta Medikuntza. Kafetegiko eraikina eta liburutegia ere bazeuden, baina kafetegi eta liburutegi barik artean. Horri gehitu Areta Nagusia eta Errektoregoa, eta hortxe duzu campusa. Ez zegoen besterik”.

Garai hartan EHUrik ere ez zen, hori



1980an jaio zen-eta. Hastapenetako Leioako campus erdi huts hura Bilboko Unibertsitateari zegokion. Fakultate gutxi, eta bakoitzean orain baino ikasle gutxiago; egin kontu. “Jantokirik eta tabernarik ere ez zegoen lehen urte hartan”, dio Angulok, “eta jendeak ahal bezain laster ospa egiten zuen

Juan Ignacio Pérez Iglesias errektoreak campusaren egoera negargarriaz berba egin zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren aurrean: “Campusa eraiki zenetik igarotako 35 urteak itxuran, segurtasun-baldintzetan eta enabiltzatasunean igjerri daitezke. Zenbait horma-zati jausten da-

### «Errektoreak campusaren egoera kaxkarra agertu dio Hezkuntza Sailari»

etxera. Laborategi-jardunak zirela-eta ia egun osoa bertan eman behar genuenok inguruko tabernetan bazkaltzen genuen. Haiek bai lan egin, gure kontura!”.

Gero etorriko ziren masifikazioa, fakultate berriak... Urteak joan, urteak etorri, “zahartzaroan” sartzen ari zaigu, nonbait, EHUko gune nagusia. Orain aste batzuk,

biltzala esatea ez da astakeria. Izan ere, behin baino gehiagotan hainbat lekutara sartzera debekatu izan da, segurtasun eza zela-eta”. EHUko iturriek dioskuenez, Bizkaiko instituzioek ez diote Leioako campusari lagundu Araba eta Gipuzkoakoek hangoei lagundu dieten heinean. Campusa makal dago. Nork sendatuko? m

### Lehen eta orain, garraioagaz arazoak

Azaroaren 23an, Garraio Zerbitzu Duin Baten Aldeko Plataformak prentsaurrea eman zuen Leioako campusean. 100en bat ikasle batzen dituen talde honek bidaia merketzea eta sarritasuna handitzea eskatzen du. Arazoa ez da aurtengoa, baina plataforma berriak salatu egin du ikasturte honetan egoerak okerrera egin duela. Besteak beste, orain lehen baino askoz autobus gutxiago daukatela esan dute ikasleek.

### «Garraioagaz arazoak ez dira berriak, baina ikasturte honetan are okerragoa ei da egoera»

Berez indar nahikoa zeukan suari erregaia botata, egunero autobusez campusera igo behar direnek erantzukizunak eta, batez ere, irtenbideak eskatzen hasi dira. Bizkaibus enpresa, Bizkaiko Foru Aldundia eta EHU bera izendatu dituzte erantzule.

Campusagaz batera jaio zen arazo baten pasarte berria da hau. Eduardo Angulok gogora dakar lehen urtean “autobus bakarra zegoela, Leioako tren-geltokitik abiatzen zena. Eta hura ere, lantzean behin baino ez”. Hurrengo urteetan egoerak are txarrerago egin ei zuen, harik eta orain ikasleen salaketa jaso duen Bizkaibusen agerpenak hobekuntza ekarri zuen arte. Frankismoaren interes politikoak ipini zuen campusa lekutan, eta orain, ikasleek diotenez, zenbaiten interes ekonomikorak eragin du bertara ailegatzea abentura latza –eta garestia– izatea.





# Getxoko literatur gida

GETXOZTARREK EUSKARAZ IDATZITAKO LITERATUR LANAK BILTZEN DITZEN GIDA.

Getxon. Sei idazle. Sei kokaleku. Irakurketarako zenbait proposamen. Poesia eta narratiba. Fantasia eta errealismoa. Abentura. Amedioa eta desamedioa. Umorea. Intriga. Literaturaren magia. Haur, gazte zain helduentzat.

Laura Mintegi   Usai Elorriaga   Kepa Altosaga   Itxaki Prieta   Joseba Bantxo   Amala Iturbide   Xabier Puya

GABONCIAN OFARTU GETXOKO LITERATURA



## Getxoztar barriak

Getxoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak herrian bizi diren etorkinen gaineko ikerketa plazaratu berri du. Lan hori irudiz janzteko Txelu Angoitia argazkilari durangarrak gurean bizi diren kanpotar etorriberriak erretratatu ditu herriko bazter ezagunetan. Orrialdeotara, lan eder horren ale batzuk ekarri gura izan ditugu, Gabonak euren jaioteritik urrun igaroko dituzten gure herrikide horien irudiak, alegia.

Argazkiak: **Txelu Angoitia**















## zineeskola

Oskar Fernandez

## Mugaturik ote dago zinema?

Gure inguruan gero eta merkataritza gune handi gehiago daude. Salerosketa eremu handi hauetan beti zinema-aretoak eraikitzen dituzte eta, jakina, beste hainbat aukera desberdin aisialdiarako. Baina oraingo honetan, zinemaren gaiari helduko diogu. Hasiera batean, filmak ikusteko aukera zabaltzen zaigula pentsa genezake, baina berehala ikusiko dugunez, errealitateko oso urrun ibiliko ginateke pentsamolde hau mantenduz gero. Alde batetik, ez da aukera berririk agertzen, nahi izango genukeen neurrian behintzat ez. Bestaldetik, eta hau da txarrena zalantzarik gabe, normalean gune erraldoi horietan eskaintzen diren filmen kalitatea oso eskasa da. Salbuespenak badaude, bai, baina zorritzarrez pantailaratzen diren istorioak azaletik ikusteko eta ahalik eta arinen ahazteko dira. Calandan jaiotako maisu zuzendari handiak esango zuen moduan, ez dira sartzen arte esparruan inolako gizatasunaren distirarik ez dute-eta. Salerosketa gune hauetan dena banalitateak kutsatuta dago, baita eskaintzen diren filmak ere. Gure inguru hurbilean bost merkataritza gune handi daude. Denen artean, gutxi gora behera, berrogeita hamabost zinema-areto dituzte, baina benetako eskaintza ez da ehuneko hogeita hamahirura heltzen, filmak beti lau, bost edo sei aldiz errepikatzen baitira. Beraz, Luis Buñuel maisu bikainaren gomendioei jarraiki, leku hauek alde batera utzi beharko genituzke, film benetan interesgarriak, hunkigarriak eta zentzudunak ikusi eta gogoratu nahi baldin baditugu. Gure eskuetan dago ikustezinak diren hatzpar horietatik ihes egitea. 4

## Zinebi sariak

**Detail, El otro sueño americano** eta **Dos encuentros** garaile Bilboko zimenaldian

**Abendu** hasieran egin den Bilboko Nazioarteko Film Laburren eta Dokumentalen Zinemaldiak 46 urte bete ditu aurten. 90 herrialdetatik heldutako 2.311 filmek eta dokumentalek hartu dute parte Zinebin, horietatik denetatik 49 euskal filmak izan dira. Antolatzaileek eta epaimahaikideek adierazi legez, aurten lehiatu diren filmeen mami soziala, generoen arteko nahasketa eta gaien gogortasuna nabarmentzekoak izan dira.

Zinebiko Sari Nagusia Avi Mograbi-  
ren *Detail* film israeldarrak irabazi du. Fikzioaren alorrean, Urrezko Mikeldia Enrique Arroyoren *El otro sueño americano* filmak jaso du, eta Amerika Latinoko film onenaren Zilarrezko Karabela ere lortu du film mexikar horrek.

## «Euskal Zinemaren saria jasotzeko 8 aukeratuetatik Alan Griffin garaile»

Euskal Zinemaren Sari Nagusirako lehiatzeko aukeratuak hurrengoak izan dira: Haritz Zubillaga, Ane Muñoz, Koldo Almandoz, Itziar Barrios, Satinder Singh, Borja Berrostegeta, Jose Angel Rebolledo eta Alan Griffin. Azken zinemagile horren *Dos Encuentros* pelikulak



Zinebiko kartela

eskuratu du saria. Dokumentalaren Urrezko Mikeldia Alejandro G. Bicecciren *Morada*-k irabazi du; animazioakoa, Phil Mulloy-en *The final solution* filmak. Ikus-entzuleen saria Hugh Gibson-en *Hogtown Blues* filmak jaso du, eta Ohorezko Mikeldia Jane Birkin eta Javier Fesser-entzat izan da. m

Saritu guztiak: [www.zinebi.com](http://www.zinebi.com)

## Ez galdu &gt; “El espíritu de la colmena”

• Non: Getxo Antzokia • Noiz: abenduak 29, eguaztena • Ordua: 19:30 • Zine Kluba



Film bikain honen atzean Karrantzan jaiotako zine zuzendari handi bat dago: Victor Erice. Lau film baino ez du zuzendu, (“Los desafíos”, “El espíritu de la colmena”, “El Sur” eta “El sol del membrillo”) baina bere izenak zinemagintzan berezko dizdira du. 1969. urtean bere lehenengo film luzea pantailara eraman zuen eta 1992. urtean laugarrena, eta momentuz azkena. “El espíritu de la colmena” filmaren gidoia, Ángel Fernández Santos, zine kritikariarekin batera idatzi zuen. Film eder eta hunkigarri hau 1973. urtean estrenatu zen. Urte berean Donostiako Nazioarteko Zinemaldian Urrezko Mazkorra, merezimendu handiz, lortu zuen eta geroztik film aparten artean egon da. Film honen bidez, beste gauzen artean, Ericen filmek jendearengan daukaten eragina bikain hausnartu zuen.

## Salduenak

Karidadeko Benta, Hiru Truku, Kauta, eta Imanol nagusi, besteak beste, **Durangon**




Argazkian, Karidadeko Benta taldea

**Aurtengo Durangoko** azokak iazko joerari eutsi diola adierazi du Gerediaga elkarteak, eta horixe bera baieztatu dute argitaletxeek eta diskoetxeek, pasadan urtean beste saldu dutela. Gaztelupeko Hotsak-ekoek Karidadeko Bentaren *Amore amore* bigarren diskoa aipatu dute salduenen artean, Bide Ertzeanen eta Kokeinen diskoakaz batera. Metak-en salmahaiari Hiru Trukuren *Nafarroako kantu zabarrak* eta Fermin Muguruzaren disko eta DVDA izan dira garaile. Kauta talde jaioberririk izan duen harrera ona goraiatu dute

Oihuka-ko arduradunek, eta Urgabereren *Edan hemendik* zein Keikeren azken lana ere ondo saldu direla adierazi dute. Elkar diskoetxeak 5 talde eta bakarlari batzuen lanak aipatu ditu salduenen artean: Imanolen *Bolona molona*, Niko eta Domika Etxar eta Robert Larrandabururen *Eperna*, Gariren *0-tik*, Oskar-biren antologia eta Benito Lertxundiren hasierako lanen bilduma. Horiek izan dira aurtengo Durangoko azokan euskal diskoetxeek gehien saldu dituzten diskoak, eta Gabon hauetarako gomendioak ere izan daitezke. m

## diskoak

**Anitza**  
DJ Axular  
Oihuka



Axular Arizmendi disko jartzailearen bigarren lan honek zortzi abesti dauzka entzungai. Bertan *techno* mota ugari nahastu ditu musikari mutrikuarrak, betiere, *techno progresiboa* eginez. Gaurko musika estilo hori betiko euskal musika tresna batez lagundu du: txalaparta. Kolaboratzaile askoren artean bada bat besteengandik nabarmentzen dena: Mikel Laboa.

**Oinetan kea**  
Keike  
Oihuka



2002ko udan ipini zen abian Ondarroako boskote hau, eta iaz, Euskadi Gaztea maketa lehiaketan, entzuleen hirugarren saria lortu zuen. Lehenengo disko honetan rock zabala eta freskotasuna eskaintzen dituzte. Gitarraz beteta ere badago, orain indartsua, geroxeago ezitsua. Abiadura eta letra barnerakoia dira taldearen beste ezaugarri batzuk.

**Edan hemendik**  
Urgabe  
Oihuka



Orain dela hamar urte sortutako talde bizkaitar honen musika iturria ez da agortu. Hirugarren disko honetan, ur berrietatik edan eta orain arte egindako musika erabat berri dute: amaitu da trikitia nagusiagoa zen bertsoen sasoi; orain, poparen eta rockaren bidetik sartu dira. Hamaika abesti erraz, arin eta melodikoak egin dituzte, lehen entzunaldian sartzen diren horietakoak.

## Korrika 14 &gt;

Afrikak egin du kantua



Orreagan hasiko da martxoaren 10ean Korrika 14, eta euskara ahoan daramala Euskal Herria galapan zeharkatuko du, martxoaren 20an Bilboraino heldu arte.

Algotar batek ipini dio berba Korrika 14ri, Afrika Bibang-ek, hain zuzen. “Ni ere bai” da kantua goiburua, Korrikaren leloa, eta jungle doinuaren abestuko du Afrikak. Kantua “AEK-ko beteranoak+Korrika 14” diskoan sartu dute. Afrikaren abestiagaz batera beste 18 kantu batzen ditu diskoak, hala nola: Kuraia, Minxoriak, Kortatu edota Joxe Ripiau taldeenak. “AEK-ko beteranoak+Korrika 14” diskoa Metak diskoetxeak merkaturatuko du.

## Aldizkaria &gt;

## Entzun!

Euskarazko musika aldizkari bakarra da Entzun! Bi hilean behin kaleratzen da, hau da, urtean sei ale plazaratzen dira. Bertan musikaren inguruko berriak, agenda, kalean edota kaleratzeaz dauden diskoak, elkarriketak etab. irakur daitezke. Urtebeteko harpidetzak 15 euro balio ditu, esan legez, urtean 6 ale jasoko ditu harpidedunak eta opari moduan “Aho bete doinu” liburua ala kamiseta bat eskuratuko du. Entzun! musika aldizkariak webgunea ere badauka eta bertan harpidetza egin daiteke. Beraz, zeure burua euskaraz musikan jantzi gura baduzu badakizu nora jo.

[www.entzun.com](http://www.entzun.com)



## esaterikbadut

Esti Ezkerra

## Egunerokoa (XXIX)

## Hainbat menderen ostan...

Denbora luzez pentsatu izan zen espainiarrak iritsi aurretik Mexikoko lurraldeetan –Mesoamerika delakoan– bizi izan ziren herriak, astronomian eta kalkulu matematikoan kontinente zaharreen baino dezente aurreraturik bazebiltzan ere, oro har eta pentsamolde aldetik batez ere, nahiko primitiboak zirela. Kronikek azaltzen dutenez, sakrifizioen kontuarekin arras harriturik zegoen Hernan Cortes, eta Tecnochtlan hiriko *tatloani* edo buruzagia zen Moctezumarekin izan zuen solasaldietako batean galdetu zion nola zen posible arkitektonikoki hain ikusgarria zen hiri batean –horrek nolabaiteko sentsibilitate artistikoa adierazten baitzuen– odol usaina nonahi aurkitzea. Isilune baten ostan, zera erantzun zion Moctezumak: “Giza sakrifizioak basakeria hutsa iruditzen zaizkizu, nahiz eta guretzat ezinbestekoak diren unibertsoaren ordena mantentzeko. Gainera, ez al da erabazteko metal txatxu bategatik jendea akatzen ibiltzea?”. Izan ere, urrez eginiko hiri bat –El Dorado famatua– existitzen zela buruan sarturik zuen Hernan Cortesek eta sekulako sarraskia eragin zuen, inolako emaitzarik ez lortzeko. Mendeak igaro dira solasaldi hura jazo zenetik hona, baina egungo politikarien jarduna entzunda iruditzen zait Hernan Cortes eta Moctezuma asko daudela munduan. Non dira jende uholdeak akatzeko gai diren armak? Nor da orain terrorista? Galderak planteatzen dituenaren logikaren arabera iritsiko dira erantzunak. 4

## Literatur sariak

**Euskaltzaindiaren eta BBK fundazioaren** lehiaketak lau idazle berri saritu ditu

**Orain dela** hamar bat egun jakinarazi zituzten Euskaltzaindiak eta BBK fundazioak urtero antolatzen duten literatur lehiaketaren irabazleak. Juan Jose Ispizua, Pantxo Hirigarai, Aintzane Galardi eta Xabier Agirre izan dira saritutako lau idazleak.

Txomin Agirre eleberrisaria eskuratu du Juan Jose Ispizua gemikarrak. *Harizpeko neska*ren *afetu* nobela poliziakoagatik jaso du saria, eta Busturialdean gertatutako neska baten argitu bako hilketaren inguruan dihardu lanak.

Pantxo Hirigaraien *40 urteak* antzerki lanak irabazi du Toribio Alzaga saria. 40. urtebetzea ospatzen duenaren albora batuko

«Udaberrirako egongo dira kalean saritutako lau lanak»

da lagun taldea, eta bizitzaren gazi-gozaok ekarriko dituzte gogora. Umoreak seriotasunari uzten dio bidea Hirigaraien antzezlanetan, eta seriotasunak barreari.

*Itoti urdinaren aspian* poema bildumak jaso du Felipe Arrese Beitia saria, bilduma Aintzane Galardik osatu du eta “sentiberatasun handiko” poemaz baliatu da. Azkenik, saiakera sarira lan bakarra aurkeztu dute aurretik, eta berorrek Xabier Agirrearen lanak era-



Jean Haritschelar sari banaketaren ekitaldian egon zen. Hura izan zen Akademiaren euskaltzainburu moduan egin zuen azken agerraldia

man du saria (eman barik gera zitekeen arren). Horrela, Xabier Agirrearen *Zertan dira askatasuna eta berdintasuna gaur egun?* lana izan da Mikel Zarate saria hartu duena.

Lau obra horiek udaberrirako plazaratuko dituztela azaldu dute antolatzaileek. Bestalde, aipatu, Euskaltzaindia eta BBK fundazioak urtero antolatzen dituzten sariok 45. urteurrena bete dutela aurretik. Euskaltzaindiako euskaltzainburu Jean Haritschelar sari banaketaren ekitaldian egon zen, eta bide batez bertan adierazi zuen, hura zela euskaltzainburu legez egiten zuen azken agerraldia. m

## liburuak



**Bakezale gerlari horiek**  
B. Serrano Izko  
Pamiela

Juan Zelaia Saiakera sariaren hirugarren aldia aipamen berezia jaso zuen liburu honek eta irakurleak, batez ere, hiru gauza topatuko ditu liburuan: gogoeta etiko/politiko bat gerraz eta bakegintzaz, talde armatu batzuen bilakaeraren inguruko ikerketa, eta ETaren gaineko analisi kritikoa.



**Elurretan hotsak**  
Pablo Sastre  
Susa

Idazle madrildarraren zarpigarren nobela honek ehun pertsonaia inguru biltzen ditu, nor bere ahotsagaz, nor bere bizi-moduagaz. Herri oso bat da protagonista nagusia: Andoain eta andoaindarrak. Liburuaren sei ataletan zehar lantegietako beharginak, azoka giroa, afari gaua eta abar azaltzen zaizkigu.

Argia astekaria &gt;

## 2005eko egutegia

**Itxura berriagaz** dator **Argiaren** egutegia, esaterako, egunagaz lotutako **gertaera bitxi eta interesgarriak** aipatuko ditu

**2004. urtea azken hutsa** hartzen dabilen honetan, urte berriari begira ipini gara, hala ere, zer ekarriko digun ezin igarri. Alabaina, gogoko dugu datozen Aste Santuko eta udako oporrakaz amets egitea, Portu Zaharreko edota Bilboko jaiak noiz helduko diren jakitea, edota otsaileko azterketen ostean asteburupasa nora joango garen aurreikuszea... Eta horiek guztiak noiz eta nola helduko diren iragartzea erraz-erraza da, Ar-

«Eguzki eta ilargiaren informazioa, santutegia, euskal izenak...»

giaren 2005eko egutegia esku artean hartu eta etorkizuna astelehen edo domeka, eguazten ala zapatu... izango den begiratzeari ekin diogu.

Argiaren 2005eko egutegia, gainera, itxura berrituta dator aurretik. Egunaren alboan eguzkia eta ilargia noiz sortu eta gordetako diren, eguneko santutegia, gizon-ema-kumezkoen euskal izenak... eta abarren gaineko informazioa aurkituko dugu. Horrez gain, hilaren ikuspegi orokorra eta egun horregaz lotutako gertaera bitxi eta interesgarriak dakartza Argiaren egutegiak, adibidez: *coca-cola* asmatu zutenekoa, Dolly



Egutegiak 7,50 euroko prezioa dauka

ardiaren gainekoa...

Argiaren egutegia 7,50 euroan dago salgai, eta egutegia ipintzeko zurezko taula dotoreen prezioa 50 eurokoa da (taula erosiz gero egutegia oparitzen dute). Ohiko salmenta puntuetan eskura daitezke biak, eta telefonoz zein emailaz ere eska daitezke. m

943 371 545 edo [denda@argia.com](mailto:denda@argia.com)

Hator, kantari... >  
abesteko prest?

*Gabon gabeen egiten dugu guztiok afari ona...* Eta abestea ere usadio zaharra da. Euskal Telebistaren lehenengo kateak ere ondo baino hobeto daki hori, eta dagoeneko prest dago Gabon gaueko “Hator kantari Hator” saioa. Kirolariak, musikariak, politikoa, sukaldariak, etab. ahaleginduko dira Oskorriren doinuakaz. Horra hor abesten jardungo duten batzuk: Urdaibaiko trainerukoak, Iñaki Azkuna, Alfonso Alonso, Ainhoa Cantalapiedra, Niko Etxart, Athletic eta Errealeko entrenatzaileak, Naroa Agirre, Beloki, Zubeldia, Eneritz Iturriagaetxebarria, Jabier Otxoa, Mayo, “Los Santxez” familia, Subijana... la denak musikatik urrun egin dira ezagun eta ospetsu, ikusi beharko kantuan zelan dabilizan, betiko legez, Gabon gauean ETB-1en.



aldizkaria etxean  
jaso nahi baduzu  
**94 491 13 37**

UK Urbe Kostako Aldizkaria 171 posta kuba  
Arretzi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48900 Getxo  
[uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) / tel.: 94 491 13 37 / fax: 94 491 58 31

## uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratia	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Euskadi Irratia	104.4
Gorliz Irratia	107.8
Koska Irratia	108.0



Getxoko Andra Mari  
Zerbitzu Estazioa

etxera  
eroaten dizugu  
gasoleoa

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km  
Getxo / Tel: 94 430 15 00



GALEA  
ASESOSES, S.L.

AHOLKULARITZA  
JURIDIKOA, FISKALA  
LABORALA ETA KONTABLEA

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA  
% 94 460 95 12  
Fax: 94 491 11 31

irabazi UKrekin

MUGI  
FISIOTERAPIA ZENTRUA

× Tendinitis × Esgintzeak ×  
× Erreuma × Kiroleko

deitzen duenak  
masaje bat debalde  
irabaziko du!!

94 491 13 37  
uk@aldizkaria.biz

Mendieta 2, SOPELA 6 1 7 6 7

[sarean]

## Santa Claus kontrolpean

AEBetako armadak Santa Claus-en  
‘jarraipena’ eskaintzen du webgune batean

**Gezurra dirudi**, baina mundua di-da batean desegin dezaketenek (hau da, AEBetako misil interkontinental nuklearrak jaurti dezakenek, NORAD dirakoak, alegia) bihotza ere ba omen dute. NORADeko sateliteak atzerriko potentziek (Txina, Korea edota Errusia) jaurti ditzaketen misil nuklearren begirale dira, AEBek kontraeraso “eragingarria” burutu ahal izateko. Gauza da, sistenezina iruditzen arren, Gabon gauean satelite horiek misilak kontrolatu barik Santa Clausen hegaldi magikoa jarraitzen dutela.

Militar hauek Gabon guztietan ‘Norad tracks Santa’ deituriko webgunean martxan ipintzen dute euren sateliteek igorritakoa munduari eskaintzeko (www.noradsanta.org). Ez al da xamurra? Bada, webgunea ez dago batera txarto: sei hizkuntzatan eginga (ez, orain-

dik ez dago euskaraz), ‘Santa-ri’ buruz informazio asko eskaintzen dute, baita urteetan zehar X-txostenetan jasotako hainbat argazki ere.

Webguneak milaka bisita izaten ditu, batez ere abenduaren 24ko gauean, eta Interneten klasiko bihurtu da. Aitortu beharra dago webgunea ondo eginda dagoela, eta umeentzako edukin egoki eta erakargarriak badituela. m



www.noradsanta.org

## webgida

CanalPDA

>www.canalpda.com

Gabon hauetan PDA bat oparituko baduzue, eskeini ere webgune honen helbidea. Gaztelaniaz dagoen gai honetako onenetarikoa da. Bertan, programak aztertu, gadget berriak frogatu eta PDAn buruzko berriak argitaratzen dituzte. Gero eta ohikoagoak diren tramankulu hauek tarte dotorea dute hemen.

MICROSIERVOS

>www.microsiervos.com

Geek, hacker... hitz arrotzak teknologian murgilduta ez daudenentzat, baina honelako weblog interesgarriekin gero eta jende gehiagori hurbilak egingo zaizkienak. Euren orrialdeetan Rubik-eko kubo nola asmatu, edota zein den Bilbo eta New Yorken arteko bide laburrena aurkituko dugu. Oso interesgarria.

## Sarean aurkitu ditugu >



Emilia Epelde > arte-galerista

## “Gustuko ditut ezinezko erronkak”



Argazkian, Emilia Epelde eta Mikel Mardaras

**Emilia Epelde erandioztarrak psikologian ziharduen, baina behinola Osakidetza agur esan eta Mikel Mardaras bikotekideagaz batera Epelde&Mardaras arte-galeria sortu zuen. 2000tik, urtero erakusketa handi bat egin dute leku desberdin batean, eta oraingoan Erandiori egokitu zaio txanda. Orain gutxi arte merkatua zenekoan paratu dute Zumetaren erakusketa, eta hantxe egon gara Epeldegaz.**

—Zelan hasi zen Epelde&Mardaras?

—1993an La Brocha Vieja aretoa ireki genuen Bilbo Zaharrean, ausardia handiz eta ezjakintasan itzelaz. Bilbo Zaharrean irekitzen zen lehen arte-aretoa zen hura. Alboan metadona ematen zieten Bizkai osoko *yonkiei*. Eta hala hasi ginen, prostituta eta *yonki* artean; oso jostagarria izan zen, zer esanik ez. Correon idazten zuen arte aditu batek esan zuen hark ez zuela hiru hilabate iraungo, eta badaroguz 11 urte. Baina dagoeneko ez

gaude Bilbo Zaharrean. Hura kendu egin dugu. Egia esan, ezin esan Bilboko udalak oso garbi jokatu duenik geugaz.

—2000. urtetik hona hainbat erakusketa handi antolatu duzue Bilbon, Miarritzen... Zergatik Erandion oraingoan?

—Miarritzen urte bi egon eta gero, aurtun zeozer berria egin gura genuen. Eta nik neure jaioteriaz pentsatu nuen. Erandio, itsasadarren ondoko fabrika handi horiek... Kultur zinegotziak esan zidan aukera egon zitekeela

merkatuan egiteko, geratzen ziren azken saltzaile bigaz negoziatzen zebiltzan-eta. Jakina, zinegotziak ezagutu egiten nau eta badaki zelako lotura daukadan merkatuagaz...

—Eta zein da lotura hori?

—Merkatua “neurea” da. Gure ama hemengo lehen arrain-saltzaileetako bat izan zen, eta ni, zortzi urteagaz, amantala jantzi eta arrainetan eskua sartzen ibiltzen nintzen. Hemen hazi naiz, hau izan da nire umetako jolas-parkea.

—Itzuli egin zara, ba...

—Bai. Ekainaren 30era arte egoteko hitzarmena sinatu dugu. Konpromisoa hartu dut udalagaz girotxoa sortzeko berton, erakuske-

**«Merkatua `neurea` da. Hemen hazi nintzen, jolas-parkea izan dut umetan»**

takaz batera. Hala, abenduaren 1etik umeentzako margolaritza lantegiak, ekitaldiak, musika... egiten gabilta.

—Zumetaren erakusketa Errege Egunera arte egongo da. Eta gero?

—Hurrengo erakusketak badauka data, eta Fito Ramírez Escudero margolariarena da. Ondoren, badaukat hitzartuta margolari gazteen beste bat; jende ona eta serioa. Horatik aurrerakoa ez da hain segurua oraindik. Berba eginda nago Juan Txillida eta Koldobika Jauregi eskultoreak, eta badaukat ezinezkoa den gauza bat ekartzeko gura. Gustuko ditut ezinezko erronkak. Oraindik ezin ezer aurreratu, hala ere.

—Zumetaz harreman berezia daukazue, ezta? Beraren lanak sarri erakutsi dituzue...

—Bai. La Brocha Vieja ireki genuenean, ezer gutxi jakinda lanbideaz, Zumeta ezagutzen zuen lagun batek deitu egin zion, “jende jatorra da” etab. esanez. Donostiatik etorri zitzaigun, besapean koadro txikia zekarrela, laguntzeko prest. Eta harrezkerotik oso harreman ona eduki dugu. m



# Bapiruke Gabonak



5-12 urte bitarteko umeentzako aisialdi jarduerak euskaraz  
Abenduaren 20tik urtarrilaren 4ra arte // Ordutegia: goizetan 10etatik 13:30etara  
Irteera egunetan 10etatik 17etara // Prezioa: bazkideek 50€/ez bazkideek 65€  
Apuntatzeko epea: abenduaren 1etik 13ra

## TAILERRAK / TALLERES

23 olentzerorako prestaketa

28 mozorro tailerra

30 merendola lagun izkutua eta euskal kantak

3 lagun izkutua eman

## IRTEERAK / EXCURSIONES

27 Gasteizera irristatzera

29 PINera (10.00-18.00)

4 Detraka haur berbena herriko plazan

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



### Esakere > "Oĩñ eztire ezetarako gauz(a)"



Altu iyetan daune altutik yausten da. Danori pasa daku noz edo noz edarigez, futbologaz, perretxikokaz, loterigez, karta bategaz eta poztasune (edo poztasun uste) ekarten daun edozein gauzagaz: alaitasun handienara heldu osten ezin hortxe lotu! Gauzek aldatu egiten direz beti (normalen txarrerako) eta yausi egiten gara Itxinako trokak baino sakonago. Kasu danatan, hori bai, bardin lotzen gara: mogiduteko bere inder barik, ezetarako gauza ez garala.

Esakeratxu hau I. Gilisastin 'Berba lapikokoa' liburu ederratik atara dogu.

Gorka Vazquez

### Gure **berbakere** 51

## ZELAN ESAN

### Erru botateko / Erru kentzeko

Testua: Xabi Bilbao

#### Zelan bota erru nonori

—Hemen batan bat ondo lasai bizi da!

—Eztozu zuk yakingo zelan pasa dan hau?

—Seguru zu asau/urrun ez zarala ibilli!

—Zuk dekozu erru!

—Zu(g)eitik pasa da hau!

#### Zelan zuritu norberan buru

—Nik hori eiñ? Pentsa berez!

—Zelan e(g)ingot nik hori!

—Hori sekulen bere eneuke

e(g)ingo!

—Ni(g)eitik ezta ixen hori!

—Konturetu barik e(g)in dot!

—Ene! Ointxe konturetu naz!

—Gure barik ixen da!

#### Adibidek

—Baia nok imin dauz angúlek katun plateran!!

—Ene! Atzoko fideok ezirez ala?

**Kónturetu bérez ni!**

—Eztozu yakingo nok graba dausten

Goenkale Athletin partidun gánen!

—Eztekot idéaripere!

—Seguru zu **ásau** ez zarála ibilli!

—Alabek 14 urte baño ezteko ta áiko

zélan érreten daun tabako ta danárik!

—Zuk **dekozu erru!** Zúgeitik ikis

dau, tximini bet zara, ta!

—Ni(g)eitik ezin ixen! Nik kasik itxi

ein dot eta: egumen puru bet!

—Parrille badeku, bai, baia sue biztu zégaz? Eztogu periódikurik ekarri!

—Ene, **ointxe kónturetu** naz! Baia

**hára, hámen dekot UK!**

# I

## Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345

Algorta

## BEHIN BATEAN

### LIBURUDENDA

Kasune, 24 ALGORTA  
Tf. eta Faxe: 94 430 74 03

## Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

## GAVRKO



GIZONENTZAKO  
MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
T:

## María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10  
T: 4910821  
ALGORTA

HARTU TXANDA





gaizka escudero / villabotas-ekoa

## Gabonetarako karduak

**G**aur egun Gabonetako erregea langostinoa bada ere, orain ez asko askoz ere jaki umilagoak jaten ziren gure bazterretako etxeetan, esaterako, azalorea edota kardua. Hasteko oliba oliotan berakatz aleak ondo txikituak urreztatu arte eduki. Gero irina apur bat, karduak berak dakarren ura, esne apur bat eta pimentoia gustura bota. Dena su ahulean ondo eragin saltsa loditu arte eta gero aurrez egositako karduak gehitu eta dena sutan eduki bost minutu. On egin! <sup>m</sup>

### osagaiak

berakatz • oliba olio • esnea • pimentoia  
karduak (Gutarra pote horietako bat)



itsaso arana / jolastoki-koa

## Kabak jakin behar dena

- 1—Mahatsa:** beste mahats mota batzuk erabiltzen badira ere, honako mahats motekin lortzen dira kaba onak: macabeo, xaello, parellada eta chardonay.
- 2—Segituan edateko:** behin sotoetatik atera ondoren, edan egin behar da, ez baita gordetzeko. Hala ere, modu egokian gordeta, argirik eta berorik gabe, ondo irauten du.
- 3—Denbora:** kaba batek gutxienez 9 hilabete behar ditu egiteko, eta 30 hilabetetik gorakoa denean, Erreserba Handia esaten zaio.
- 4—Edateko:** koparik egokiena, txirula erako luzea eta estua da; beti ere behetik eutsi beharrekoa.
- 5—Botila zabaltzeko:** kortxoari eskuarekin heldu, eta botila astiro biratu. Kortxo kentzean ateratzen den soinuari korroskada esaten zaio.
- 6—Tenperatura:** bost eta zazpi gradu artean edatea gomendatu arren, bederatzi gradutan ere edan daiteke.
- 7—Mota:** kabak azukre mailaren arabera desberdintzen dira:  
*Brut Nature*, azukrerik ez; *Extra Brut*, 6 gramo arte litroko; *Brut*, 15 gramo arte; *Extra Seco*, 12-20 gramo; *Seco*, 17-35; *Semiseco*, 33-50 eta *Dulce*, 50etik gora.



## Gorlizko Haizea

Reggae eta patata tortillak



Unai Manzanet eta Marisol Aldea, bere ama

**Jeneralean** eskualdeko herri handienetan bizi garenek (dela Getxo, dela Leioa, dela Erandio) udan ez bada, gutxitan jotzen dugu Uribe Kostako ekialdeko herri txikitara: Plentzia, Lemoiz... Bada, oraingoan Gorlizen dagoen taberna bat proposatu gura dizuegu, hain zuzen ere, Haizea taberna. Igor eta Unai Manzanet anaiek eta euren ama Marisol Aldeak hartu zuten orain dela hamar urte tabernaren lema. Azken hau arduratzen da asteburuetan tabernako barra pintxoak betetzen, amatu batek bakarrik egiten dakien moduan: ederto. Azpimarratu behar dugu, gainerako pintxoak primerakoak diren arren, ospe handiena daukatena betiko patata tortillazkoak direla, eta badela

Haizeara asteburuetan jaki soil baina gozo hau dastatzera baino ez doana.

Bai, Haizea mokadu bat jateko lekua baino gehiago da. Musika asko zaintzen dute han. Beno, musika baino, reggae musika zehaztu beharko genuke. Izan ere, musika mota hori da (beste estilo batzuetakoa ere ipintzen dute, jakina) Haizean gehien entzuten dena. Taberna bera Bob Marley erregearen irudiz josita dago eta berari eskainitako tenplua ematen du. Hau gutxi balitz, Haizea eskualdeko leku paragean dago, Gorlizko hondartzan bertan, eta esan behar da bistak paregabeak direla. <sup>m</sup>

**HAIZEA TABERNA**  
Astondo bidea 7, Gorliz

## JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA

## Asado r



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
- Egunero karta berezia
- Gaez dastatzeko menua astelehenetik ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14  
Algortako Portu Zaharra / Getxo  
Erreserbak: 94 491 25 93

**TXIKI-AUNDI KAFETEGIA**  
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu  
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

eleizalde  
taberna  
eguneko menua

Kresaltxu 13  
T: 94 602 14 33 - ERROMO-GETXO

**Zurikaldai**

JOKIN GARATE BAYO      KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Neguriko Etorbidea 9      Aingeruaren etorb. 4B  
T: 491 14 87      (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
48990 NEGURI      48990 GETXO

**KONTXI**  
ZUAZUBISKAR  
URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,  
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA  
T: 94 491 02 93

**Taberna Berri**  
Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf.: 944 306 493





**ITXASGANE**  
 prentsa • aldizkariak  
 GETXOKO KIROL PORTUA  
 Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21  
 ALGORTA • GETXO

**BATIZ KRISTALDEGIA**



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)  
 T:94 430 69 42 /ALGORTA

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

**OLATXO**  
 altzariak  
 dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 Juan Bautista Zabala, 5  
 AREETA ALGORTA  
 T. : 94 464 89 94 T. : 94 491 13 94

**VILLABOTAS  
 JATETXEA**



Menu merke eta askotarikoak  
 Espezialitateen karta  
 Giro atsegina

T: 430 43 33  
 Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

<p><b>URA</b>                  t</p> <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19)                  Petrolioia baino beltzagoa daukazu bihotza. Ea Eguberrietan apur bat biguntzen zaizun. Oso nabaria da alboko pertsona batek inbidia izugarria daukala zuri begira dagoenean. Kontuz ibili!</p>	<p><b>OTSOA</b>                  t</p> <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18)                  Opariak, bazkari ederrak, parrandak... Gabonetan diru asko xahutzen da; horregatik, aurreztu egin behar da aurretik. Arranoak baino urrutirago hegan egingo zenuke, ahal bazenu; lurrean zaude, ordea.</p>	<p><b>ADARRA</b>                  t</p> <p>(Otsailak 19 martxoak 20)                  Bildotsa, itsaskia, foie... Zer ipiniko duzu Eguberrietako otorduetan? Patata tortilla, onena. Begiratu txarra egin dizu horrek, baina ez da harrizkeoa, eman diozun erantzuna eman ostean.</p>
<p><b>AITZURRA</b>                  t</p> <p>(Martxoak 21 apirilak 19)                  Eskiak jarri beharrea, hobeto ibiliko zinateke lera bategaz; bada, Olentzerori eskatu. Beti gauza bera egin beharrek aldarde txarrean jartzea normala da. Ez kezkatu horregatik.</p>	<p><b>HOSTOA</b>                  t</p> <p>(Apirilak 20 maiatzak 19)                  Botila bat txanpain erosi beharko duzu, bada, Eguberrietarako; sakela diruz bete, eta dendara! Aurrean daukazu horrek txapel aurpegi galanta dauka, eta txapelkeriak baino ez ditu esaten.</p>	<p><b>EGUZKIA</b>                  t</p> <p>(Maiatzak 20 ekainak 18)                  Gabonetan jan behar dituzunakaz, tripa aurrera joango zaizu berriz ere; kontuz ibili jan-edanagaz. Behingoz izan bada ere, zorrea zure alde izan duzu, eta hori gustura egoteko modukoa da.</p>
<p><b>GARIA</b>                  t</p> <p>(Ekainak 19 uztailak 18)                  Gabonak hemen dira, eta dagoeneko hasi zara goibel jartzen; oraindik asko sufritu beharko duzu. Askotan esaten duzu sormenerako erraztasun handia daukazula, baina hori erakutsi beharra dago.</p>	<p><b>LASTOA</b>                  t</p> <p>(Uztailak 19 abuztuak 17)                  Gabonetako oporrak direla-eta, gurasoen etxean izango zara laster; hori gozarena, hori! Ez al duzu uste 1,65 metroko altueragaz saskibaloian profesionala izatea benetan gaxta dela?</p>	<p><b>IRATZEA</b>                  t</p> <p>(Abuztuak 18 irailak 16)                  Zuri bost axola Olentzero edo erregeak badira; zuk gura duzuna opari asko jasotzea da, ezta, <i>Iratzea?</i> Hezurrek gero eta min handiagoa ematen baldin badizute, horrek esan gura du zahartzten zabilzala.</p>
<p><b>META</b>                  t</p> <p>(Irailak 17 urriak 16)                  Gabon-kantak abesteari uzten badiozu, aste osoan eguraldi aparta izango dugu. Beti esaten duzu seme-alabak izateko ez zaudela oraindik prest, baina adina ere pasatzen ari zaizu, aizu!</p>	<p><b>HAZIA</b>                  t</p> <p>(Urriak 17 azaroak 15)                  Zergatik esan zenion halako gezurra? Orain larritik ordainduko duzu. Txakurraren eta katuaeren arteko harremana zoragarria da zure bikorekideagaz daukazuagaz alderatuta.</p>	<p><b>NEGUA</b>                  t</p> <p>(Azaroak 16 abenduak 20)                  Berba-jario ederra daukazu zure aho bero horretan, baina berbek ekintzak behar dituzte bidelagun. Goxo-goxo belarrira esaten dizkiozu entzun gura dituenak, baina esandakoak bete egin behar dira gero.</p>




**mungia**  
 oKINdegia

*Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".*

*Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.*

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76  
 ALGORTA



KEKO



denborapasa


LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Balakatuak, ferekatuak. 2. Larruzko oinetako. Arrazoi. 3. Iparraldean, nezake. Arrantza ontzi txiki. 4. Bizkaiko herria. Garai. 5. Iridioaren sinbolo kimikoa. Urrea. Gipuzkoako hiria. 6. Euskal langile sindikatua. Barda. Boroa. 7. Bizkaieraz, Inola. (Infin.) Ukitu. 8. Letoniako hiriburua. Aluminioa. Musika nota. 9. Trebea. Sortu zintuena. 10. Koskadun. Naizen hau.

Goitik behera

1. Langile klasea. 2. Martxan jarriak. 3. Zirt edo ..., erabaki! Ikusmenaren organoa. 4. Asia Txikiko antzinateko hiria. Asiako estatua. 5. Nor pluralean. Amerikako estatua. Kanpo. 6. Zubereraz, ibarra, harana. Emakume izena. Uranioa. 7. Bos-tehun. Bokala. Iridioa. Behar, egiteko. 8. Uztarriz lotu. Mila. 9. Iparraldean, keinu. Eskoziako familia-multzo. Amerikako estatua. Iodoa.



Soluzioak



asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Poloniarra.
- Zeru kontuetan aditua.
- Erroman bizi da.

> Aurrekoaren erantzuna: Xabier Amuriza  
> Irabazlea: **Galder Larrazabal**

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo  
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Zuri Haitz  
Jatetxe vegetarianoa



Sertutxa 4, Sopela  
Telf. erreserbak: 645 732 991



Bittor Egurrola

Eleizpe eskaut taldea, 1983

**Burgos aldean**, Oña herrian, aterata dago goiko argazkia. Bere unerik onenean 100 kide baino gehiago eduki zituen Don Txomin abadeak sortutako (1970) Getxoko Eleizpe eskaut taldeak. Esan behar da, talde honetan Getxoko makina bat gazte ibili dela luzaroan 2004ko Martxoan taldea desagertu zen arte.

Eskaut talde bat desagertzea, berez, penagarria bada ere, askoz penagarriagoa da jakitea azken hiru begiraleak (Diana, Nora eta Eunate) beharrean jarraitzeko prest bazudela, baina... Desagertze horren arrazoiak jakin gura badituzu, irakur ezazu UK 70. aleko Iritzia sailean Eunate Serranok idatzitakoa.

Dena dela, gure esker beroenak eman behar dizkiegu urte askoan Andra Mari auzoko, Eleixaldeko, bizitzan parte hartu eta lan egin duten gazte hauei guztiei, makina bat gaztetxo giza printziopioetan hezi dituzte eta. m

**Zutunik:** Lerate Arrieta, Oihana Mier, Enrike Olaso (begiralea), Illart Arrieta, Manu Escajedo, Bosco Urrutia, Leire Escajedo.

**Makurturik:** Josune Garcia, Iñigo Araiko, Aitor Herran, Ibon Herran, Naia Garcia.



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...



Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07 • e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa



[aitormenak]

**ANDER VILARIÑO** > pilotua

“Bizitza hau sekula ez amaitzea nahi nuke”

Testua: **Jon Urresti**



**Defini ezazu zeure burua berba bitan.**

Zintzoa eta borrokalaria izaten saiatzen naiz.

**Zein animaliagaz zatoz bat?**

Hegaztia izatea gustatuko litzaidake, hegan egitea zer den jakiteko.

**Zein liburu gustatuko litzazuke idaztea?**

Ekaitz askotatik onik atera den kapitain baten biografia.

**Eta zein pertsonaia antzestu zenuke film batean?**

Alejandro Amenabar-en edozein filmetakoa.

**Historiako zein pertsona miresten duzu gehien?**

Julio Verne. Aparta da zelan aurreratu zitzairen denboran gero gertatu izan diren gauzei.

**Zure jakirik gogokoena.** Espagetiak.

**Aitortu dezakezun bizio bat.** Txokolatea. Hasten naizenean, ezin gelditu.

**Oporretara joateko lekurik aproposena.**

Udan ezin ditudanez hartu, neguan eskiatzera joaten naiz. Lasaitu eta kirola egiten duzu aldi berean.

**Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?** Traizioa.

**Zer janzten duzu lo egiteko?** Praka motzak eta kamiseta.

**Ezin zaitezke bizi...** Familia barik.

**Zer gordetzen duzu sakeletan?** Diru-zorroa eta autoaren giltzak.

**Zer berri gustatuko litzazuke entzutea albistegi batean?**

Gerran edo garapen-bidean dauden herrietan hobekuntzak badaudela.

**Ohitura txarren bat...**

Makina bat aldiz erreparatu eta aztertzen dut gauzak zelan egin, horrela jokaturako egoerak hobeto menderatuko ditudala uste dut.

**...Eta sineskeriaren bat.**

Formulara ezkerretatik igotzen naiz beti. Lehiatzen hasi nintzenetik egiten dudako gauza da.

**Zertan gustatuko litzazuke haragitzea?**

Bizitza hau sekula ez amaitzea nahi nuke!

**Amets bat?**

Norberak egiten duenarakin zoriontsu izatea.

**Zure azken erokeria.** Pilotu izatea erokeria da. m

**LABURREAN**— Potentzia, burrunba egiten duten motorrak, aurreratze beldurgarriak... Ez, ez gabiltza 1 formulaz mintzatzen, baina World Series izeneko mailan halako sentsazioak nabaritu ahal ditugu. Azkenengo hiru denboraldietan, Ander Vilariñok (Hondarribia, 1979) garaipen bi lortu ditu maila horretan, eta zortzi aldiz igo da podiumera; gainera, pilotu hasiberri onenaren saria eman zioten 2002an, debutaren urtean. Hamasei urteagaz zirkuituetan lehiatzen hasi zenetik, 16 garaipen eta 25 podium bereganatu ditu guztira, baita Espainiako txapelketa bi ere. Ander automobilismoaren mundu korapilatsuan bidea egiten dabil, eta 1 formulara jauzia egitea gustatuko litzaiok. “Jendeak ez daki zein zaila den hau”, dio. Alabaina, irabazlearen pentsaera dauka: “Pilotu guztiek, lehiatzailea doazenean, irabazi dezaketela uste dute, bestela etxean geratuko lirateke”. Andrés Vilariño pilotu mitikoaren semeak aita izugarri miresten du, “bere grina, gogo, profesionaltasun eta seriotasunagatik. Asko ikasi dut aitarengandik”.

# izan zaitez korrika laguntzailea



Eskuratu beherapenak  
Euskal Herriko 300 komertzioetan,  
12 euroren truke.

Euskal Herria euskalduntzen

ORREAGA-BILBO 2005  
MARTXOAREN 10etik 20ra

aek

